-Sorgiñak edonun eta sorginkeria nun-nai (berriro Peruk). Leyre eta Iratxeokok esango dittek nai dutena; baiña eurak an zeudek beeran, gu berriz emen goietan Izaki guztiarekin bat egiñik. Gurekin aizearen epela eta aizearen ixilla, baita zalaparta eta burrundara guztiak ere; gurekin euriaren erauntsiak eta ekaitzaren txingorrek; gurekin elurmaluta zuriak mara-mara txabola gaillurrean kokatzen diranak; gurekin biziak eta illak ebagitzen dituen ifarraldeko aize miña... Emen sorginkeria besterik ez dago.

-Mari ez bada nor da? (Pello ataundarra berriz ere). Mari gurea degu. Nun bizi dan ere bada kigu: leizeetako atakan agertzen da; baiña bizi, lurpeetako eremuetan bizi da. Lurrak baditu gutxienez iru bizi-leku saillak: bata goietan laiñoentzako, beste lur-gaiñean, gizakientzako

eta irugarrena lurpeko eremuetan. Goikoetan eta azpikoetan ez du gizonak zer egiñik; Marik, ordea, bai. Or ikusten degu zeru-goietan leize batetik bestera dijoanean su eta argiz inguraturik illargiaren itxuran edo, asarre danean, zalaparta osoan bere zaldi-gurdian; lurrera, berriz, noiz-nai jaisten da, eta kobratzera betez ete gezurrik esaten badezu; eta lurpeko eremuetan bizi da, an du bere egoitza beste sorgin eta deabru askorekin. Erensugea ere arpe-zuloetatik agertzen da eta leize-zuloak lurpeetako atea dituzu...

-Bai, ba, gure aitak esan oi zuan (Anton amezketarren txanda da oraingoa) sorgiñak danetariakoak daudela: onak eta gaiztoak. Txindokiko Mari bera ere alditan ona eta alditan gaiztoa izan oi da. Zergatik ori? Tarteka

ra eraman zuan. Beia galdu zan mendian eta neska bialdu zuten gurasoak bei-billa. Illunabarrean Mari agertu zitzaion bei gorritxo baten antzera. Isatzetik eldu zion neskatoak eta tximistak arturik eraman zuen bere leize-zulora. Arrezkero an omen da eta atakan ikusten omen dute bere ille-tximia urregorritzko orraziakin orrazten...

-Zuek usten dezute sorgiñak eragiten diotela biziari, lurra bizi-berrituz udaberriro? Sorgiñek biurtzen dituzte loreak fruitu eta igali? Beteluko Preminek.

-Gizona, nungo munduan bizi aiz? (Pellok eraso barriro) Ataunen sorgiñari sorgin esan oi diogu, sortzea eurak zaintzen dutelako. Sor guztien gain. Ori ume batek ete bazekik gure artean. Beraz sortzen dan zer guztietan dago sorgiña eta sorginkeria.



Dolmen de Seakuain (960 m.)

geu gaiztoak geralako, eza kobratzen duanean bezala: gezurra esaten badezu, egia izateko falta dana, kenduko dizu. Eun ardi izan eta larogeita amar dituzela esan dezu? Egi osorako amar ardi falta dira, oietxek kenduko dizkizu Marik, ezeztik bizi bait da. Egirako falta dana ezetza da. Zenbaitetan, ordea, Mari bera ere okerra da eta Irabe baserriko neskatoa arrapatu eta bere leize-

Ara zer entzuen nion nere amari zazpi urte betetzeko nituala: bein Garitasoro baserriko alabea joan zan gau batez arto-txuriketara auzoko etxe batera. An berriketan ari dirala, sorgiñak ukatu zitun Garitasoroakoak; etxera doala, Maizpeko zubian, sorgin moltso bat agertu zitzaion, esanez: Ez gerala, baiña bagaitun; Mari Petralin ez beste guztiak emen gaitun. Eta ori esanez bakoitzak

ille bakar bat kendu, buru-soil utzi arte. Kontuak atera diran ala ez...

.....

Ortan ari dirala, orra goiko malkorretik kate otsa arkaitz artean; gizona dator kateak arrastaka txorkatilletatik zintzilik, kapusai urratua gañean duala eta abarkak amantarrakin oiñetan naiko zikiñak; bizarra eta tximia orrazteke, sasien antzera naasi...

-Zer da ori? Dio arriturik Anton amezketarrak.

-Penitentzia egiten ari dan gizakia. Emen dabil Naparroako mendietan malkorretik malkorra eta gaillurretik gaillurrera. Oker aundiren bat egiña izango du. Lakuntzako Peru mintzatu da.

Aizkeneko itza bukatzerako gerturatu zaie gure gizon menditarra.

-Eguerdi on, jaunak! Goikoak eman dizuela bere laguntza eta grazia.

-Zein Goikok, Illargiak ala besteak..?

-Neretzako illargia zerki bat da beraz ez dana eta beste bate-
ren bear dana...

-Emen ari giñan berriketan, itz-jario, sorgineiri buruz. Sorgiñak badirala sinisten al duzu zuk?

-Gai orretan sartu baiño naiago nuke nik ardi-zati bat banu jateko...

-Artu gizona nai duzun beste eta ez egon begira. Eran ardoa ere. Naparra da eta beltza. Onak egingo dizu odola barnean, arpe-giko kolore oiek apur bat gorritzeko.

-Ardorik ez. Penitentzia egiten nabil.

-Zer da ori?

-Ibilli nabil batetik bestera, etenik gabe, kate aukeratu eta apurtu arteko guztian.

-Ez duzu lanbide makala, orratio, oiek ausi arte emen bizi bear badezu...

-Ibilli bearke nere okerkeria barkatuko bazait...

-Atrebentziakin, eta zer

okerkeria da ori? Zion Pello atundarrak.

-Ara-erantzun zion bere lagun Lakuntzako Peruk -onek erantzun baiño leen nik emango dizkiat Sakana baillarako berri batzuek. Erensuega Artxueta inguruan bizi da eta urtero Sakanako gizaki bat, neskatxa aal bada, eskeiñi bear izaten diote janaldi baterako.

-Ori arazo beltza dek!

-Nola arazo ori konpondu eta korapilloa askatu az zekitela, jakin dute Sakanakoek gizona dabilela mendietan penitentzia egiten. Eta beregana etorrita daude laguntza eske.

-Bai, egia da. Erantzun dio menditarrak. Ni Urbasa eta Andia mendietan nenbillen nere eginkizuna betetzen; baiña orain Aralar mendia artu dut nere egoitzarako eta erensugearen bila nabil.

-Arabeko kazketarra terebita ta tximista anketan puz, puz, putz..! Dio Pellok eskuarekin iru kiñu egiñaz.

-Zer ari aiz?

-Konjuroak egiten. Nik ez diat emen erensugerik ikusi nai. Aparta sartago kendu ansenago mendi Berigain, sar, sar, sar..!

Pello kiñuka ari da eta Aralar menditik kanpora bota nai du erensugea Sakana beste aldera.

-Kiñu oiek alperrikoak dituzu -erantzun dio Pellori- Ni Teodosio naiz Goñi baillarakoa, etxe oneko zalduna eta bizitza latza daramat gaillur auetan baiña egin nuen okerra ere benetan beltza eta latza zala...

-Esan, esan...

-Okerkeri guztiek badute bere ondorena zuzentasunaren aurkakoa. Zuzentasunak besoak bear ditu berdiñak aldamenetara balantzarik egin gabe. Zuzenean bear eta zuzentasuna galtzean balantza eginda, orduan okerra sortzen da eta gaitza egiten izakiaren aurka eta gizakiaren aurka, Goigoikoaren aurka bezala. Oker ori zuzendu bear ekilibrio besoetan berriro sortzeko...

-Bai, bai, jan zazu beste mokautxo bat, ederra dago-ta... Fra-



Dolmen de Arantzadi (887 m.)

so zion Antonek ardi-koipea ez-pañetatik dariola; ez bait zion tuitik ententitzen.

-Nik zuzentasuna besoa lurrerañi jatxi dut eta okerkeri aundiagorik egindedana baiño, egin ezin.

Zer arraio egin dezu, ba? -Ataundarrak berriro- Esaiguzu bein betiko zertan dan okerkeri ori. Arranoa bezala zabilta jira-biraka aidean, ariari eldu gabe. Zatoz ardatzera eta jo emen muga.

-Gauza urrutitik datoz eta bi itzeetan esi ezin. Esan dizuet Goiñikoa naizela, zalduna eta etxe onekoa...

-Zalduna bazera, ez zera nolanaiko etxekoa izango.

-Zaldun naizen ezkeroz, mairuak burukatzerá alde egin nuen Tudela aldera.

-Tudelarañi elduta al daude mairuak?

-Bai, antzen daude, eta Ibar erritik gora pasa ez ditezen, antzen bertan eutsi bear diegu. Orretan gabiltza danok alkartuta. Urte bete gerratean pasata, pozik netorren etxeruntz, nere barruan biotza kantari nabari nuela. Etxeko beroak eta etxeko maitasunak espero ninduen. Zoriona nekarren barruan gaiñezka. Egu-


raldia ez zan eder-ederra, baiña kanpoko illunak ez zidan barruko argirik itzaltzen. Nere poza illargi betearen antzekoa zan: borobilborobilla, bete-betea.

-Eta gero zer?

-Goñi ballarako egira eldu nintzanean, eremuetako gizon bat agertu zitzaidan esanez: Teodosio, zoaz lenbailen etxera; emaztea duzu ogean beste batekin. Bat-batean aldendu zan ikuskizuna. Gau illuna, illargirik gabeko gau illuna. Laiñoak beltz. Tximist-argiak zeru-sapaiean bere santzo ikaragarriekin. Eremuetako berriemillea lurrak irentsi zuen. Parte txarrekoa zan benetan, garora ikusi nuanez nere zori gaiztorako. Sua dariola ekin nion aldapabeeran etxerañi, ainbeste bidar zorionez beterik egin nituen bidezka aietatik. Ezpata motza eskuan nuelarik sartu nintzan lo-gelan eta ogean zeudenak, biak irail nitun batera amorruez beterik.

-Ondo egiña. Pellok.

-Odoldutako ezpata eskuan nuela, ekin nion berriro mendiruntz nere asarrea baretzeko. Alaz ere, nere barruan odol-egarria ez zan asetzen, buruan irakiten, euria eta kaskabarra gora begira artzen nituen begietan, ezpañetan, bekokian ba-



Dolmen de Arzabal (857 m.)

rruko beroaren lasaigarri... Egun-sentia arte baten azpian arkitu ninduen, lur-gaiñean eserita, ez-pata alboan... Ortz-garbi zegoan. Laiñoak eta ekaitzak alde eginda zeuden eta nere barrua baketuta. Etxera biurtzeko garaia zan. Nere gurasoek eta seme-alabek erailtzearen berri jasoko zuten onez-kerro...

-Merezi zutena eman ziñun. Moztu zion Lakuntzako Peruk. Gu kaalo zertan aritzen diran gure emazteak. Neu ere nereakin ez nazaizu geiegi piatzen...

-Ni bai, nerearekin zearo eta oso-osorik piatu nintzan eta amorrux orretzek bete nindun: nik orrelako uste osoa beregan izan eta berak ni orrela iruzurtzea...

-Geienon korapilloa ortan datza -ebagi zion Peruk-: gu emen gabiltza mendirik mendi udaberri, uda eta udazken; gure emazteak berriz beetan gu gabe eta askotan geure premirik gabe, etxeko giltza eskuetan dutela eta gu beti etxetik at. Eurak nagusituta bizi dira lurra lantzen asi ziren azkerotik eta alkartzen ez bagera gure eskubideak defenditzeko, errukigarri izanen gera...

-Ixilleko elkarte bat bear degu -diotza Pellok.

-Sakanean -berriro Peruk-asita gaude. Noiz-beinka, il berrian, alkar ikusten dugu emazte-kien nagusitasuna salatzeko eta elkarri laguntzeko...

Eskumuturrekin ezpañetako koipea garbitu eta Antonek itz:

-Arazoa beste baterako utzi eta entzun daiogun Teodosiori bere gertakizunak agertzen.

-Argiarekin batera jetxi nintzan etxeruntz eta goiko malkorretetik entzuten nitun negargarriak. benetan esan nezake, une artan malkoak katilluka edaten zituztela nere senideak. Gauza ez zan gutxirako. Gerturatu nintzanean, biotza gelditu zitzaidan korde gabe: nere emaztea ikusten nuen sotinka etxetarian. Emaztea il ez badut, nor il dut? Arra sortu zitzaidan banean: nor il dut? Ekin nion arinaringa eta txakurra irten zitzaidan bidera, buztana ankartean. Zer gertatu da? Esan nien arnastuka. Gurasoak il dituztela gabaz eta nork ez dakigula. Arritzekoa izan da txakurra iñor ez salatzea. Esagunen bat dugu anima elkor gaizto ori. Gorroto gaituenen bat...

-Gogorra egin zenduan! Erasozion Premin Betelukoak.

-Barruko indarrek utzi zida-

ten bat-batean eta belauak alkar jotzen asi. Lurrara erori nintzan, pitzatutako orma zaarra erortzen dan antzera. Odolduteko ezpatak biotzaren erdia zulatu zidan. Nere errua, nere okerra, osin beltza... Malkoz betetako osiña, beltza, mendia baiño aundiago... Barkamen gabea. Emazteak, lepotik elduta, jaiki-arazi nindun negarrez. Baiña, Teodosio, gaitzen batek jo zaitu. Zer duzu? Nolatan naastu zera orrenbesteraño..! Sorginkeri bategaldu nau. Gaiztoa agertu zait aingeruz jantzia, aolkua eman dit, bultzatu eta osin beltzera bota nau... Nik iñuzu-iñuzu bere esanak sinistu eta esan oien ondorenak jaso ditut, mailaz-mailla beeko infernuetara jetxi arte... Nork aterako nau emendik..! Barkamenik ez dut, salbamenik ez dut, itxaropenik ez dut..! Bai, Teodosio, salbame-na badezu eta itxaropena ere bai. Gogoratu ezazu Iratzeko abadeak zer esaten zigun: gure siniskerak utsak zirala. Illargia ez dala Jainkoa. Beste Jaun bat dagoela gorago eta Semea lialdu digula bere odolez gu askatzeko. Okerrak badu zuzenerako bidea. Arrek ordaintzen du, Semeak, gure gaizakerietatik sortzen dan zorra. Aurretik ordainduta dago, itxaropena zearo galdu ez dezagun. Gogora itzazu oiek, Teodosio maitea, eta goazen bertan Iruñara, apezpikuarengana, gurasoak eortzi ondoren... Eta alaxe egin genduan.

-Eta, seme ori al da Kixmi? Pello ataundarrak.

-Gure aurrekoek ala deitzen omen zioten Jesus Salbatoreari eta argi aundi bat sortu omen zan arekin batera eta gure aitona batek etorkizuna ageri: Kixmi jaio da eta gureak egin du.

-Gureak egitea, zer da? Pellok berriro eraso.

-Gurea aztikerietan sinistea izan da beti. Goikoa ez dala illargia, ezta eguzkia ere, Oiek baiño gorago beste Jaun bat dagoela eta goiñean dagoen zerk orrek maite gaituela eta gure okerkeriak zuzentzeko, Semea bialdu digula lurrera. Orretzek ematen

dit poza barnean eta nere mal-koak txukatzen.

Ataudarra ez zan ixillik gelditzekoa:

-Nik usten det, eta Ataunen danok sinisten degu ori, aztiak bearrezkoak dirala gaitzak gugandik aldentzeko, indarrak sortaritzen dituztelako euren kiñuz eta itz misteriosoz. Adurra sortzen dute eta adurra bada gauza baten eta bere itxuraren artean...

-Ori ere, bear bada, ala izanen da; neri, ordea, Kixmi orrek pakea dakargit barnean eta lasaitasuna biotzean. Eta, zuek ondo artuta banoa ni, zueri eskeintzeko txabolarik ez dut. Koba zaarrak billa oi ditut nere atsedentoki eta egoitza. Altxuetara bidean noakizue eta bertaritzen bazerate, alkar ikusiko degu berriro. Agur, jaunak eta esker mila.

Ango burni-zarata Teodosiok alde egin zuanean.

-Gure Sakanara ere eldu dira. berri oiek -zìon Lakuntzakoak-; baiña aztiak ez zeudek batiere pozik: gure aurrekoen siniskeriari eutsi bear zaiela...

-Ba baiña illargia jainkoa ez baduk -zìon Beteluko Preminek-Zergaitik gurtu bear dugu Jainko bezala? Jarri dezagun beste bat gorago eta segi dezagun ilberriak eta ilbeteak ospatzen oitura degun erara. Zer ajola dik orrek?

Jarraitu zioten oraindik ere apur batean, Teodosiorekin asitako gaiari; berala, ordea, asper-tu ziran gaiez; ez bait ziran orretan artzantzian bezin maixu. Alaz ere, kezka barruan zeukaten eta bigaramonean ardiak illez arindu ondoren, Altxuetara joatea erabaki zuten Teodosiorekin izketa aspertu bat egitera.

Ifar aizea sortu zan une artan eta laiño-matasak aldendu zitun Andia mendiaren gibelerat eta ortzia garbi agertu zan. «Goiz gorri, arrats auri» dio esaera zaar-rak eta «arrats gorri, goiz aize-tzu»; emen ez zan ez bat eta ez bestea gertatu; berez, eguna ondo etorriko zan, naiz-eta Putterriko ttonttor-ttonttorra laiñoz estalita egon, txapel baten antzera. Orrek zera esan nai du,

Mari ogia erretzen ari dala leizeko bere labea, patxara ederrean, eta ori beti izan da agerbi-de ona, ez bait du ekaitzik sortzen aserre ez danean. Borda-atarian bertan lo egiteko ere ez zan giro txarra, an goian izarrak kiñuka...

.....

Goiz-sentirako erne zeuden. Bakoitzak bere ardiak larraiñera bialdu eta eguerdi-ostereko asi ziran Atxuetarako bidean. Mendia ifar-aldetik artu eta gaillurre-ra igo ziran. Beriain mendia zeukaten aurrez-aurre; atzerago Andia eta Urbasa; eskubitan Aizkorrri eta ezkerretan, an beko zuloan, Iruñea eta emen aurrean auzpez Sakana. Atzetik, berriz, ifar-aldetik, an urrutian Pirineemendiak. Ikusmira osoa eta borobilla. Begiak zabal-zabalik dituzte beuren erriaren inguruei begira. Ikusmira zoragarria.

-Baiña, zer ari da or gertatzen? orru ikaragarriak entzuten asi dira or beeko zelai-gune orretan... Dio Antonek.

-Bai, bai -erantzun Peru Lakuntzakoak- an erensugea, begira beren zulotik agertzen. Bildurgarria da benetan, mizto luzea, ezpataren antzo, ortzez jositako agoan darama.

-An Teodosio bere aurrean egurrezko gurutzea eskubian konjuroa egiteko. Ikaratu da, igesi dijoa, ez bait dio gurutzeak la-guntzarik eman... Pello ataundarrak.

-Segitzen dio erensugeak eta kateetatik eldu dio, kate lu-zeak irentsiz... Galduta dago Teodosio.

Une artan, bere burua gal-durik ikusita, Goiñikoak eskuak gora jaso eta santzo egin du:

Mikel, Mikel gurea, salba na-zazu!

Artzaiek sundituta gelditu dira begien aurrean agertzen zaien ikuskizunarekin: Mikel goiangeruak ezpataz lepoa moztu dio erensugeari eta lepo barruan irentsita zeuden kateak zaitu. Mikelek gurutzea dakar burugaiñean. Odolik gabe daude beera begira sorginkeri arren au-

rrean. Lakuntzako Peru da bere onera lenen etorri dana:

-Sakana libre da, Sakana libre da, erensugea akabatuta gero!

Teodosio lurtean etzanda erensugearen alboan, kapusaia odol-zipriztiñez, oiñak eta eskuak aske kateak ebagi ondoren, ar-nasarik bueltatu ezinda eta bere penitentziaren azkenetan, kateak eten artekoa bait zan eta kateak etenda zeuden... Biotz-biotzetik atera zaizkio eskerrak Teodosio-ri, bene-benetako eskerrak Goiko Jaunari... Bitartean artzaiek inguratu zaizkio ete beure esku aundiz bizkarra berotzen diote zorionak emanez. Onela mintzo zaio Peru:

-Zorionekoa zu, Teodosio, sinistu duzulakoz. Sinismenak ekarri dizu salbamena. Sinismenez oiù egin duzu eta zure oiura Mikel aingerua etorri zatzu. Zorionekoa milla bider, zorionekoa milla bider...!

Izan ere Lakuntzako Peru artzaia kristautasunez kutsututa daukazute eta itz-jario biurtu zaigu; besteeri izua ez zaie oraindik biotz-barrendik aldendu; baiña, ori bai, Teodosiori lagundu diote eskuak eta oiñak kateetatik askatzen. Ondoren Igaratzara eraman dute, naiz-eta arek Goiñira abiatu nai. Bide luze ori egiteko atsedent bat bearrezko zaio eta orretarako festa bat antolatzea erabaki dute artzaiek. Beste ardi bat il eta festa ospatu. Bigaramonean, gorputza apur bat sendoturik, bialdu zuten Teodosio bere Goiñiko etxera Peruk Lakuntzaraiño laguntzen ziola bidean.

.....

«Egia bazan, sartu dedilla kalabazan» esan oi da gure artean upui bat esan ondoren; baita sorgiñenak eta erensugeenak diranean ere. Dana dala eta dana den ipuiak esaten digu Teodosio berriro zaldun gertatu zala eta bere esker ona erakusteko, arri landuz egiñiko elizatxo bat eraiki zuala gertakizun auen oroigarri.

MUAMMAR EL GADDAFI

Anes Arrinda

Libiak 3.400.000 biztanle ditu eta 1.759.540 kilómetro laukiak. Petroleo askodun erria eta batag-beste biztanle bakoitzaren irabazia 10.000 dolarrekoa da urteero (Milloi erdi pezta). Beraz, erri aberatsa eta orregatik edo, Tripoli deritzan uri nagosian, edozeinek du «Peugeot» edo «Toyota» bana.

Petroleoaren berakada aundi onetan, nekazaritzan ipini dituzte beuren begiek. Esate baterako, Zirenaika deritzan aldean, gari-soro izugarrien artean, eundaka ektarea sagarrez bete dituzte. Bigarren urte onetan asita daude Golden eta Starking sagar ederrak jasotzen.

1980'garren urtean petrolotik 24.000 milloi dolar atera zituzten; orain, berriz, 8.000'ra jeitxita daude eta orixe izan da nekazaritzari begiratzeko arrazoibidea.

Toki oietan 20 egazkin be-reizi dituzte ongarririk eta mormorok iltzeko darabiltzen gaiak zabaltzeko.

Tripoli inguruan beste orrenbeste gertatzen ari da. Baserriak jasotzen dituzte: etxea, traktore bat, bi bei eta irurogei ardi eskeintzen dizkiote utsean baserri-tar izan nai duanari. Oiekin batera 25'tetik 50'etarako ektara-lur. Fin jokatu ezkeroz 20.000 dolar ateratzen dituzte; geienak, ordea, 12.500'etan gelditzen dira. Baiña, lanik egiten ez duanari irugarren urtean guztiak kentzen dizkiote baserri-tar berria sartzeko.

Orain 16 urte El Gaddafi koronelak Libia ren aginpidea bere gain artu zuanean, erri osoa arez betetako eremu bat besterik ez zan; gaur, berriz, zera aberastuta daude petroleoari esker... naiz eta gauza asko alperrik galdu eskuartean.

Jendeak esker onez ikusten du El Gaddafi'ren garaiko aldaketa izugarri au.

Ona aldaketa batzuek:

Medikuntza arloan, besteetan bezala, aldaketea aundia izan da, 1970'garren urtean Libia osoan 40 (Berrogei) sendagille zeuden. Gaur 2.000'tik gora dira. Ori ez da guztia: 1984'an eraikitako Ikastola Nagusitik 200 (berreun) sendagille aterako dira urte oro. Ikastola ori Bengkazi'ko urian dago eta badute erri orretan atzerapenak jota-ko umeentzat berebiziko lekua, aurrerapenez bete. Sendagille oietatik, laurden bat, emakumeak osatzen dute. Berau ere, arabeen arteko errietan, ez da gero aurrerapen makala...

Beste arlo baten, ikaragarriko ekintza daramate aurreruntz, Libia osoa urez asetzeko, barrutik kosta-alderaiño: eremutik Tripoli'ra. Lan orretarako tubo izugarriak, zazpi metro terdi luzean eta lau metro diametroan, egiten ari dira 1.200 surkoreano langileek. Tubo oiek egiteko lantegiak, ertzeetako osarririk gabe, bi kilometro terdi ditu luze eta kilometro bat zabal-lean. Asmakizuna amerikarrena da, zuzendaritza australiako batek darama eta lana egiteko Korea ego-aldeko jende langillea.

Baiña, lan oietan, guztietan, libiatar teknikoak daude murgilduta lanean gogo aundiz eta itxaropen aundiagoarekin. Petroleoaren berakada onek bultzatzen ditu lana bizkor egiten; berandu baiño lenen.

Lenengo zatiñ egiña daukate eta 3.300 milloi dolar bertan xautuak. Bigarrena oraintxe asteko. Bi tuberiak alkarrekin joango dira eta lau milloi kubiko ur eramango dituzte Tripoli'raiño eta Libian zabalduz. Makiña bat soroeri eman lezaioke bizia-ainbeste urakin.

Bertan lanean ari dan Korea-egoaldeko injeniero batek esaten zuenez, beste orrelako lanik ez da munduan osotu Txina'ko arri-esia aundia ez ba'da. Ura-xe lanik aundiena munduan. Ondorengo, au izango omen da.

LIBURU ORLEGIA

Maotzetun'ek Liburu Gorria zuen bezala, Muammar El Gaddafi koronel lendakariak ere badu Liburu Orlegia. Rousseau'ren Kontratu Soziala gogorazten duena. Bertan ipintzen ditu bere asmakizunaren oiñarriak eta, berak dionez, auxe da Irugarren Teoria Orokorra. Beste biak zerak dira, Rusoena bat eta bestea Amerikarrena.

Bere iritzirako alderdi politikoak ez dute balio: bakoitzak bere askatasuna eta erantzunkizuna ez ditu besteen eskuetan utzi bear, alderdi politikoen eskuetan, alegia.

Baiña, bere barru-barruko asmoa auxe da: Amerikarrak zanpatu eta bere burua Sozialista Arabe guztien lendakari biurtu.

1969'garrenean, El Gaddafi aginpidera eldu zanean, petrolio-konpani guztien jabe egin zan, iraultza berri bat eratuz eta «Jamahiriya»-Aroa sortuz.

Jamahiriya erri xeearen aroa da, masaren aroa: Kongreso erri-koi bat sartu da Libia'n. Auzo bakoitzean, lantegi bakoitzean, ofizina bakoitzean, ikastola bakoitzean sortzen dira elkarteak eta elkarte oietatik Legebiltzarrera doazen diputaduak eta auk osatzen dute Erriaren Kongreso Orokorra, Libia'ko Estaduaren zuzendari.

Biltzar erri-koi bakoitzak (lantegietan, nekazaritzan, Ikastola Nagusian...) eratzen du bizi-modua, lana eta alogera. Lan gutxiago egin nai ba'dute ere, ori beuren esku dago; baiña, orduan jornala ere txikiagoa izango da eta beste biltzarrak kontu artuko diete ia zergaitik lan gutxiago egiten duten...

El Gaddafi jaunak, ordea, iraultza ori mundu zabalera eraman nai du eta beste Laterrietan gazteek iraultza egin nai ba'dute,

oiek txalogarriak dituzu eta la-
guntza zor zaie.

Lantegi eta nekazaritza el-
kargo aundiak, guztiak Jamahi-
riya'renak dira. Alaz ere, dendak
eta lantegiak, bakoitzak berea,
sortzea aske da; baiñan iñor
menpean artzerik ez dago, sozio
bezala ez ba'da.

Eroskiak auzo guztietan
daude, Laterriarenak.

Etxeak, berriz, bakoitzarena
bear du izan eta gelenak Aginta-
ritzak eraikiak. Iñori norberaren
etxee alogeran eman ezin: zeuk
erabilli ala saldu; beste biderik ez
dezu izanen...

* * *

Liburu Orlegian ez da erlijio-
rik aitatzen; baiña, alkoola debe-
katurik dago, arabeen artean le-
gea dan bezala. Zinemarik ez da.
Automobillak ugari kaltetan eta
tabernatxo bat noiz-beinka; baita
ogi-dendak ere. Beste animazio-
rik ez dezu arkituko'uri audieta-
ko ibilbideetan zear.

Liburu Orlegia dotriña-
liburua da eta Kostituzioaren or-
dezko.

Iru zati ditu. Lenengoa: de-
mokrasiaren akatsak eta korapi-
lloak erriaren aginpideak aska-
tzen ditu eta ezerestatu. Bigarre-
na: Ekonomiaren korapilloen as-
katzaillea sozialismoa da. Iruga-
rrena: Irugarren Teori Orokorrak
oiñarri soziala du.

* * *

Xistema berri oñetan de-
mokrazia komite errikoietan, el-
karte errikoietan eta langileen el-
karteetan eraikitzen da. Guztiok
osatzen dute eta alkartzen dira
Erriaren Kongreso Orokorrean.

Erakutzi eta ezitzeko mun-
duan dauden xistema guztiak
apurtu bear dira, kultur-iraultza
orokor baten bidez, indarrez eza-
rri dizkioten mentalitate, ideia
eta gustu guztietatik gizona as-
katzeko.

Alogeran oinarrizten diran
lantegi-mota guztiak desegin eta
beuroen orde zozio-arteko el-
karteak sortu, arazo gizartekoak
konpondu aal izateko...

Orra or Irugarren Teoria
Orokorra Muammar El Gaddafi'-
ren iraultza berria, mundu osoari
eskaiña eta, al ba'da indarrez
ezarria.

ALOS - TORRE'KO USUA

- Nun da emen Alos-Torrea..?
- Bilbo'tik al zatoz?
- Bai, Bilbo'tik nator.
- Ikusten al dezu or, erriaren sarre-
ran, etxe luzanga aundi bat..?
- Bai, ikusten det.
- Ori zera dezu, zibillen kuartela.
- Baita, baita.
- Aurrerago dagoen etxetxo ori, ez-
kerretara eta ibai-gaiñean, Maxpe
dezu.
- Ondoren?
- Enparantza txikitxo bat, bizpairu
etxez...
- Bide zabala estutzen dan orre-
tan..?
- Bai. Orixe dezu Alos-Torrea gaur-
koa.
- Baiña, ori etxe txiki bat dezu, bi-
zitzakarrekoa...
- Aurren badu baratzatxo bat
ere... Utza.
- Au al da guztia?
- Ez nizuke esango. Ondoren dato-
rren lantegi zaar orrek (aroztegia,
alegia) badu goiko-aldetik, kale
zaarrean, torre baten orma orain-
dik erortzeke... Badirudi Bilbofako
bide-zabal au egiteko, etxea bota
zutela alde batetik...
- Bai. Emendik begiratuta, bide-za-
baletik alegia, lantegi onen teilla-
tua goraka dijoa beste alderrarte.
- Gaiñaldetik dago Astillero-kale
edo Kale-Zaarra deritzana. Andik
dago torre baten orma zaarra esan
degunez, eta orma orretan daude
leio eta ate gotiko egiturakoak...
- Bai, ote?
- Etorri eta ikus. Askotan pentsatu
izan det auxe izango zala antxiñako
Alos-Torrea edo aren zati bat.
- Nik ez det ala uzte.
- Zergaitik ez?
- Arakistain'ek (Tradiciones Vas-
co-Cántabras) dionez bere gaztea-
roan Alos-Torre gaiñean etxe bat
eraiki omen zuten.
- Bai, ementxe dago. Alos-Torrea
du izen eta zerorrek esan didazu
oso txikia dala...
- Alaxen da izan ere.
- Baiña, Alos-Torrea ez zan ain txi-
kia izango. Ez zait iruditzen. Arren

oiñarri osoak bete ote zitun etxetxo
onek..?

- Ori ere ala da...
- Dana dala eta dena den, gaurkoz
Alos-Torrea izena duen etxetxo
onen ondoren dago gotiko-leiodun
orma zaar ori eta norbaitek ikustea
konbeni erori baiño leen.
- Bai, paret au torre batena da. Or-
ma au bakarrik gelditzeak arritzen
nau...
- Beste iru ormak txikiagoak dituzu
eta ez dira onen kideko. Arostegia-
ren teillatuek orma onetan du bere
gaillurra. Ortik beera dijoa bide-za-
baleruntz.
- Bilbo'ko bide-zabala noizkoa de-
gu?
- XVIII'garren eunkian egiña da.
Bazituzten beuren arrazoiak ere ar-
tarako.
- Zer arrazoibide?
- Plaentxia, Soraluze'tik eta aurre-
ragotik zetozten iskillu eta burni-
tresna guztiak ibaiez etorri oi ziran
Deba'raiño.
- Nundik asita?
- Orixe ez dakit. Alzola'n badaude
erreka-ertzean txalupak eta ontzi-
ak lotzeko uztai borobillak.
- Alzola'n..?
- Bai. Antxe daude zubi zaararren
inguruan. Astigarribia'n, berriz, ba-
da "moillatxua" eta bazan "astille-

ro" izeneko etxe bat ere, tren-bidea
egitako botatakooa...


- Soraluze'tik Alzola'ra eta Astiga-
rribia'ra ba ote zan bide-zabalik..?
- Nik jakin ez. Baiña, Deba'tik Al-
zola'runtz egindako bidea, portura
ibaitik zetozten burni-tresnak bus-
titzen ziralako egiña da. Urez eka-
rri bearrean, legorrez eraman aal
izateko.
- Ori ala ba'zan, Alos-Torrea zutik
egonda ere, bota egin bear bidea
zabaltzeko...
- Etxe zaar bat botata ere, guri ajo-
la gutxi. Alaz ere Alos-Torrea ize-
neko etxetxo bat badegu emen
errian, Arakistain'ek aitatzen dua-
na. Arren inguruan, kale zaarretik,
torre baten orma zaar bat ere bai,
lantegi baten gain-partetik...
- Ezer ez baiño geiago.
- Orrenbestez eldu daiogun ariari.

ALOS-TORRE'KO USUA

Euskaldun erri-musikak badu an-
txiñako doiñu bat bere letrarekin:

Alostorria bai, Alostorria
Alostorreko zurubi luzia...

Musika eta bertsoak, Bertsoekin
kondaira eta edesti bat.



DEBA ~ negua

Alos-Torrea ibai-ertzean dago. Torreak aberatsek egiten dituzte. Gure aurrekoan aberastasunak, mendian abereak, itsasoan ontziak, erreka-zulo eta mendí-muiñoetan burniolak... Baita erroak ere. Geroa zenbait burniola errota biurtuko dira gure historian zear.

Alos-Torreak, ibai-ertzean dagonez kai-babesean ontziak izango zitun itsasoan eta abereak mendietan. Gaurko egunez, "Lastur"ko zezenik geienak (Saka'renak) Alos-Torre gaiñeko mendietan daude: zezen eta larrabei...

Garai bateko oiturak agintzen zuteenez, Torreetako jauntxoak, zaldunak ziran eta beti zeuden burrukarako prestu. Gure Alos-Torre'ko Beltran jauna ere ibillia zan Gaztelanian Almanzor mairu eta Santxo Irugarrenaren garaian...

Naparroa'ko Erregeak deituta ibilli zan ibilli ere.

Bitartean etxean bere alaba Usua. Umezurtza.

Bera izango degu edesti onen ardatza. Aita Beltran alargun gelditu zitazionean, ugazama ekarri zioten etxera... Zorioneko ugazamak Onak ere badira ba, benetakoak, baztarretan...

Usua eta ugazama. Ugazama eta Usua. Ugazamak izan zitun bere alabak ere.

Orduan eta okerrago Usua'rentzat. Aita Beltran, "jaun maitia", gerra-

tean zebillenean, Usua'ren larriak etenit gabeak izan oi ziran jauregi barruan.

Berri txar oiek eldu ziran Beltran'en belarrietara eta erabaki bat artzendu:

— Usua, emen gaizki bizi zera.

— Bai, aita, gaizki bizi naiz zu kanpotik zeranean; baiña zurekin ondo bizi naiz eta ez nuke zuregandik alde egin nai.

— Pakeak ere badu bere prezioa, alabatxo. Emen burruka daukagu.

— Bai, aita. Ori ere ala da.

— Aldé egin bearra daukat urrutira eta zenbat denborako jakin ez.

— Ez nazazu emen bakarrik utzi.

— Nerekin eraman ezin...

— Eta, zergaitik alde egin bear dezu..?

— Zaldunak gera eta Erregearen mendeko. Mairuekin burruka gorriak darabilzkigu eta utsik egin ezin.

— Orduan, zer..?

— Ezkondu egingo zaitut.

— Nora, aita?

— Bidania'ra. Ba det an lagun bat eta badu arek semea zuretzako gizon gaztea. Akatzak izango ditu; baiña, akatsik gabeko gizonik nun da..? Zuk maitez legunduko dezu...

— Morkotza leguntzea ez da erreza, aita.

— Morkotzik latzeenak ere bere barruan mami gozoa izan oi du.

— Bai, aita. Zuk nai dezuna. Alegiñak egingo ditut.

— Zurea zan Alos-Torrea ez da gaur

zure etxe, inpernu-toki baiño. Obedezu zeurea izango dan beste etxe batera aldatu...

Ezkondu zan Bidania'ra zoro batekin "erorik eta zororik an bazan"... Alaz ere bere aita maitearen gogoa pozik bete zuan eta morkotzaren biotzeko mamia billatzen saiatu zan. Gauzak ondo begiratu ezker, bere autzaroko etxean baiño obeto bizi zan...

Ezkondu ezkeroz zazpi urte pasa zitun etxera etorri gabe. Aitaren eriotzak erakarri zun Alos-Torre'ra; bitartean zuan biotzean ausardirik izan orretarako.

Usua'k maite zuan bere aita Beltran jauna. Amarik eta anai-arrebarek ezean, bere biotzeko meta-indar guztiak aitarengana biurtu zitun...

Onak eriotzak biotza leertu zion. Biotzetik odola dariola etorri zan etxera Gau-illa ospetzako eta ondo-rengo illeetak.

Oitura zan Gau-illa ospatzeko.

Gau artan bertsoetan ekin oi zuten, bakoitzak beuren miña erakutziz eta ildakoaren goraltzak egiñaz.

Usua ez zan ixilik egon.

Gau arteko bere eresiak gureganaiño eldu dira. Usua'k bazun esatekorik eta esan zitun guztiak. Onela asi zitzaigun:

·Etxe eder leio bage ontan ez naiz sartu zazpi urte auetan, eta zortzigarrenian aita Beltran'en iltzian...

Zazpi urte etxetik kanpo. Zazpi urte etxerik ikusi gabe.


Zazpi urte Bidania'n ezkondu. Etxe eder karabi landuz egiña. Ate eta leio gutxi, burrukarako alabearez. Ibaia alde batetik eta mendia bestetik.

Itsasontziak ate ondoan...

Zenbat gauza gogoratzen zizkion etxe eder arek. Bere jaiotza lenengo ta bat:

"Amandrea neria nitzaz bi erdi egin zanian, milla oillo il eta eskaratzian..."

Festa audiak egin zituzten Alos-



DEBA ~ negua

Torrea'n. Milla oillo sukaldean, oillo asko dira. Zenbat salda-upel atera litezke milla oilloetatik..? Kanpoko eta erriko, an ez zan iñor falta. Oilloak orrelako jan-aldietan salda egiteko izan oi dira jateko baiño geiago. Izokiak (salmón) ibaian zeuden ugari, lupiñak, legatzak, bixiguak... Txekorrak mendian, arku-me eta antxumeak belardietan ugari, txakoliña eta sagardoa bertakoa, ardoa naparra, arraiña eraman oi zuten mandozaiñek ekarria...

Erri guztiek parte artu zuan festa aretan:

*"Zazpi zezen
korritu ere
enparentzian..."*

Bazan Deba'n enparantza; baziran zezenak; bazan zezenak korritzeko oitura...

Eta ez dute, alajaiñetan, oraindik oitura ori galdu. Zezenak inguruko mendi guztietan daude Izarraitz'eraio: zezen txiki, gogor, gorriak histori-aureek aien ondorengoak... Eta, zezenik gabe ez da festarik gaurko eguneko Deba onetan ere. Zezenak kalerik-kale enzierroan goizetik, enboladuak eguerditik zezen-korrituak arratsaldetik . . . Egunero.

Usua jaio zan egun artan ere zazpi zezen izan ziran enparantzian korrituak. Ez da gutxi.

Oiek orrela dirala,zer egiten zuten ama-alabak bitartean? Ona zer dion:

*"Ni ere banengoan
lumatxo artian
eta nere amandria
urre-gortiña artian..."*

"Andre" esaten dio bere amari, errespeto aundiko itzez... Bera, lumatxo artean eta ama urrezko gortiña artean: urrez apaindutakoak edo urrezkoak...

Aberastasuna dario.

Jaiotzetik eskontzara. Aitak Bidania'ra ezkondu zuan, bere etxetik alde egin aal izateko:

*Gero Bidania guzian
bat zan erorik eta zororik,
aita neriak aura
senartzat eman dit
baiña ez nuke trukatu
obeagoagaitik."*

-DEBA ~ negua

Benetako maitasuna zion Usua'k bere aita Beltran'eri eta bere naiá betétzeagaitik ezkondu zan zoro arrekín. Eta, alaz ere, pozik. Arritzeko ere bada.

"Aita jauna neriak niri eman zidan imiñan dotia, ama andriak ere ixilik bere partia".

Ondoren bere Bidania'ko ezkontzaren berriak eskeintzen dizkigu:

"Lenen gabean begi-biotzak loaren mendean baiña berriz ere bigarreneen. Irugarrena igaro baiño len ondo poztu ziñan Alos-Torria eldu zalako neregán semia."

Berri oiek eman ondoren intziria datorkio biotzetik eztarrira:

"Alos-Torria bai, Alos-Torria, Alos-Torre'ko zurubi luzia. Alos-Torria'n nengoanían goruetan bela beltzak kua, kua, kua, kua leioetan. Andik jaiki eta urre-goruaz jo nuan. Baiño andik laister berri gaiztoak jo ninduan."

Bela beltzak espiritu txarren irudi izaki, etorkizun gaiztoak agertze-koak.

Gorua ere urrez. Goruekin aldendu zitun badaezpadako berrián eme-ille ziran bela beltzak...Bela beltzak aldendu zitun, baiña berri txarrík ez: "berri gaiztoak jo ninduan".

Zer berri txar? Aitaren eriotza edo gero esango duan berria? Alos-Torrean, alegia, semea jaio zala ezkontzátik at, Beltran gudatean zebille bitartean.

Ondorengo bertsoak orrelakoren bat adierazten dutela dirudi:

"Ixo, ixo zaldun odol txarreko gaztia. Ala ere gutxiago zan zure aginpidia".

Gau-illa aurrera doa eta Usua'k ez du ixiltzeko gogorik biotzeko mindura erabat uztu artean. Aurrean ditu bere aizpak. Irripár negargarri bat ezpañetan duela, onela die:

"Aizpa ederrak or daude ederrík eta galantik atz ederrak ereztunaz beterik."

Ederrak eta galantak. Ondo jandakoak. Ederki jantziak eta apainduriz beteak:

"atz ederrak eraztunaz beterik": aberastasuna Alos-Torreak dario: "Ez daukatela mantuetan zulorik. Alare gutxiago begietan negarrík."

Ederrak, galantzak, ondo jantziak, apainduak eta alaitasunean pozik aitaren illetak teatro bat besterik ez balira bezala. Eta, ugazama?

"Ama andria ere bai poza dario".

Alargun prestatua, etxearen jabe, nagusirik gabe... Nor maite ez zitzaion falta...

"Nere biotza bakarrik mindura dario".

Illeteetara doazen guztiak ez dira "mindunak". Ildakoarekin. maitasun-lokarriz bilduta zeudenak, oietxek dituzu benetako "mindunak": segizioan dijoaztenak.

Beltran'en Gau-illan mindun bakarra Usua zan. Beste guztiak ez zuten "begietan negarrík", alderantziz, baizik: "poza dario"...

Usua'k ez ditu esateko guztiak amaitu. Gau onetan bera geldi araziko duenik ez dago iñor. Zigorra astinduko du ezker-eskubi:

"Aita jauna neria Gaztela'n zanían ixil askorik jaio zan Alos-Torria'n semia. Ala ere ixillagorik dago bakian ezitzen Zarautz aldian gure jatorriaren loitukerian..."

Mairuekin senarra burrukan dan artean, amazteak iruzur egiten dio. Alaba jakiñean egon eta ixildu egin

bear. Baiña, gaur ez da ixilduko bere barruko mindura kanpora irauli arte:

"Ai au mindura beltza, ai ene lotsa alabak negarra ta aitak lur otza"

Alabaren beste negarrík ez gaur Alos-Torrean: alabak lotsa biotzean, aitak lur otza gaiñean:

"Zeñak loitu zaitu zu Alos-Torria? Ai nere aita maitia, Iltzea ondo egin duzu aita jaun maitia."

Aurrekoen etxea zikinduta ikusi baiño, obe iltzea. Alabarentzat geldituko dira lotsa eta negarra. Aitak bere eginkizuna amaitu du.

Emen amaitzen dira bertsoak; baiña, gertakizuna bera ez da amaitu erriaren gogora eta pozera. Orregaitik edo, aizken muturra erri-jakintzak erantsiko dio:

Beltran jauna ez zegoan ilda, lozorro batek artuta baizik. Lozorrotik esnatu danean. Usua alaba ari zan izketan. Geldirik iraun du aitak alaba ixildu arteko guztian; orrela jakin izan ditu bere etxeko berriak...

Okerra zuzendu aal izan du, Usua'ren onerako eta zuzentasunaren argibiderako.

Okerrak zuzendu gabe eta gaiztoak zigorrik gabe ez du onez eramaten erriaren biotzak. Onak saria bear bait dute eta gaiztoak zigorra, justizia erren gelditu ez dedin...

Ostatuko Mikela'rena esan bearko ote degu emen ere: "egia ba'zan sartu dedilla kalabazan..?"

Bertsoak or daude. Ez dirá gaurkoak. Gertakizun baten 'ispillu' ote dira?

Edo ta, asmakizun uts baterena?

Bertsoak ezik Alos-Torrean nun zegoan ere badakigu... baiña, historia zeatza, asmakizun utsa edo bien arteko naasketa ote dan, orixe bai ez degula ziur sekula jakingo.

Anes Arrinda



LA ALAMEDA DE CALBETON O CALBETON-EN ZUMARDIA

Honor a sus creadores.

¿Para cuándo un monumento a su nombre?

En su momento los debarras aprovecharon los escombros del túnel del ferrocarril para crear un espacio abierto sobre los arenales de la playa. Aquel espacio es hoy la Alameda de Calbetón. Pudo haber sido una residencia para el Duque del Infantado o el Marqués de Narros como en Zarauz. Pero, afortunadamente no cayeron en esa tentación.

A esta Alameda ellos le pusieron un nombre euskérico: ZUMARDIA.

"Zumarra" es olmo en euskera. Y "zumardi", olmedal u olmedo. Ellos plantaron olmos y por esa razón la llamaron ZUMARDIA que alguien tradujo por ALAMEDA, cuando en ella no hay álamos, de donde se deduce el nombre de alameda.

Zumardia es olmedal como Zumárraga es lugar de abundantés olmos.

Nuestros antepasados eligieron un árbol espléndido, frondoso y autóctono que se da bien en toda la re-

gión. Robles y hayas exigen para su desarrollo normal cotas más altas; pero el olmo se da bien a nivel de cota cero, junto al mar.

Los cien árboles que se han arrancado de la Alameda han sido olmos enfermos por un contagio que procede de Inglaterra. Ellos cubrían la parte central y más importante de todo el espacio arbóreo. En una zona marginal se encuentran algunos castaños de Indias que agonizan de pena. El resto lo completa el plátano.


Fernández Flores el humorista y novelista gallego llamaba al plátano **árbol municipal**, porque en un momento dado todos los municipios españoles plantaban plátanos y sólo plátanos.

También a Deba le llegó la hora del **árbol municipal** y así toda la arboleda sobre la ría es de plátanos como gran parte de los de la periferia de la Alameda y los más jóvenes del resto.

Con el cambio de régimen político también cambiaron otros modos y ya podemos ver en la Alameda nuevas plantaciones de árboles autóctonos. Felicidades al Municipio por haber olvidado al **árbol municipal**, que con sus enormes hojas acartonadas atascan todos los conductos de desagüe provocando cuantiosos gastos durante todo el otoño al retirarlas de la circulación. He visto en algunos pueblos podarlos antes de que pierdan la hoja, matando dos pájaros de un tiro.

El olmo, y sobre todo el fresno (lizarra), tiene la ventaja de que sus hojas son menores y deleznales, quedando a pie del árbol y sirviendo para abono del mismo. Tenemos en la sierra del Aralar grandes bosques de hayas a menudo en terrenos roqueños pero con zonas de tierra negra, con humus formado por la descomposición de la hojarasca del mismo bosque. También una Alameda sin plátanos encontraría su abono en sus propias hojas.

—DEBA ~udaberria



Alameda sin álamos y con árboles contorsionados

La poda

El estado de algunos árboles, de muchos, por el efecto de la poda bienal presenta un aspecto cancheroso. Nudos y agujeros se suceden en el árbol hasta parecer auténticos monstruos. Si Don Quijote de la Mancha pasara por Deba y su Alameda, seguro que habría que añadir una versión más a sus luchas con los molinos de viento y los pellejos de vino de la hospedería. Si aquellos le parecieran monstruos ¿qué es lo que le habrían de parecer estos árboles maltrechos...?



ZUMAR = OLMO
ZUMAR-DI = OLMEDO
ZUMAR-DI-A = EL OLMEDO
Se va quedando sin olmos

Mantener los árboles de la Alameda a dos o tres metros de altura, tenía algún sentido cuando la Alameda estaba en el arenal de la playa y los hoteles del pueblo también. Desde sus habitaciones los turistas podían contemplar la playa y el mar creando un aliciente para el turismo que siempre ha sido una de las fuentes de la economía debarra. Árboles altos impedían esta visión. Poda al canto. Cada dos años. Un capítulo en los presupuestos del Ayuntamiento y ya está. Esto no falla: cada dos años hay que gastar lo presupuestado. Y sigue la rutina año tras año sin que a nadie que pueda cambiar la marcha de estos acontecimientos, se le ocurra ponerse a pensar, si las circunstancias del momento en que se estableció esa costumbre son las mismas o han cambiado...

Y, ¡vaya que sí han cambiado!

De los hoteles que estaban en el arenal han desaparecido el Hotel Deva, el Hotel Celaya, el Egaña, el Iriondo y el Visi. Todos seguidos y situados uno detrás del otro. Queda el Hotel Monreal convertido en Hostal y a media marcha. No hay turistas a quienes estorben los árboles altos.

Por otra parte la Alameda ya no está en el arenal de la Playa, sino en la calle Arenal, ya muy lejos de las arenas y de la Playa. Desde los hoteles ya no se podía ver la playa, ni el mar.

¿A qué viene el mantener los árboles a tres metros de altura?


Las continuas podas los han herido y maltratado de modo cruel.

¿Por qué no se permite al árbol que adquiera todo su tamaño natural, toda su esbeltez y hermosura?

Con diez árboles desarrollados al máximo cubrirían de sombra en verano mejor que con cien encanijados a base de hachazos.

Imaginos la Alameda con treinta o cuarenta árboles de diez a veinte metros de altura con copa amplia y frondosa cada uno... Sería la mejor Alameda de Guipúzcoa y Vizcaya. No me atrevo a decir también de Alava; porque Vitoria tiene una Florida con árboles impresionantes.

Sólo nos haría falta plantar árboles autóctonos frondosos y dejarles subir a sus anchas hacia el cielo azul, quitando paulatinamente, por etapas, toda la colección de troncos retorcidos que impiden por su multiplicidad la visión total de la Alameda o mejor de Calbeton-en Zumardía.



¿Árboles o monstruos?
Muñones retorcidos
¿Zer dira?

Sería un símbolo de la libertad, también para los árboles, que protestan ante los hachazos retorciéndose de dolor.

Enero 1987. En plena poda

Anes Arrinda



IÑIGO DE LOYOLA: NOMBRES Y APELLIDOS (1)

Sus diversos nombres

Iñigo durante su vida usa nombres diversos; cuando menos estos tres: *Enecus*, *Iñigo* e *Innatius*. Digo que cuando menos esos tres, porque el P. Leturia en su obra *El Gentil Hombre Iñigo López de Loyola*, nos dice que sus biógrafos repiten varias veces: «*Yñigo López de Loyola*, *Ignatius* seu *Inicus López*». Convierten *Ignacio* en *Inico*.

En la página 41 de la misma obra nos dirá que en un acta notarial de Azpeitia aparece como testigo el 23 de octubre de 1505 *Inego* de Loyola refiriéndose al mismo Iñigo.

En el proceso de Azpeitia de 1515 se le cita con el nombre de *Enecus* que debió de ser su verdadero nombre. (Página 84 de la misma obra de Leturia).

Vamos a seguir un momento a Telletxea en su obra «*Ignacio de Loyola solo y a pie*». En la página 157 nos dice que Iñigo parte de Barcelona a Roma para poder embarcar hacia Jerusalén, que era su verdadero objetivo. Era el año 1523, y añade:

«Pudo llegar a Roma el Domingo de Ramos. Allí pasó la Semana Santa...

Habiendo llegado al 29 de marzo,

ya el 31 había logrado el indulto pontificio... en el que se le daba la apetecida licencia o pasaporte para ir a Tierra Santa. Alguien le redactó en latín la oportuna súplica que ha aparecido en los archivos del Vaticano. En ella figura como *Enecus de Loyola*».

En un documento oficial, pasaporte para Extremo Oriente, donde él pensaba quedarse, firma como *Eneco* y no como Iñigo que era el nombre que ya lo empleaba en su vida normal.

Han pasado once años y *Eneco* o Iñigo estudia en París, en la Universidad cosmopolita de la Sorbona, donde ha conseguido el título de Maestro en Artes. Cuando en Roma firma *Enecus* venía de Barcelona y había pasado su vida entre Azpeitia, Castilla y Navarra; pero, ahora, once años después, se ha convertido en europeo y busca un nombre internacional, *Ignacio*. Dice Telletxea, páginas 223-224:

«El 5 de abril (1534) obtenía Iñigo el título de Maestro en Artes...

Recibió la birreta en los Mathurinos de la calle Fouarre. Ya era el Maestro —no Padre— *Ignacio*. Con este nombre queda inscrito en los libros oficiales de la Universidad. Nadie se explica esta mudanza... Todavía fa-

miliarmente le llamarán Iñigo y firmará, aún años más tarde, algunas veces con su viejo nombre. Poco a poco se fue imponiendo el de Ignacio, con el que pasará a la Historia».

«El curso siguiente podía inscribirse en la Facultad de Teología: *Domini Ignatius de Loyola*, diocesis *Pampilonensis*. Ya no importa el anonimato».

En Azpeitia *Eneco* se convirtió en *Ineco*, *Ineco* en Iñigo, Iñigo en Ignacio. Y hoy día, Ignacio en Iñaki...

Después de esta firma de la Universidad de París y reunidos ya los primeros once compañeros, llegaron a una conclusión unánime, un documento firmado por los once. «En el noveno lugar aparece *Ignatius*»... «El documento, en el que, además, se comprometían a entrar en la Compañía, si el Papa la aprobaba, fue firmado tras una misa celebrada por Fabro». (Páginas 282-284 de la obra citada).

Y añade más adelante:

«Por fin, el 27 de septiembre de 1540 Paulo III firmaba en el palacio San Marcos la Bula propiamente fundacional de la Compañía».

Eligen superior para esa Compañía recién nacida y todos están de acuer-

do en señalar a Ignacio como superior. Así le llaman, *Ignacio*; pero él firma *Iñigo*.

Iñigo ha sido su nombre de guerra en la Corte de Castilla y en sus gestas militares y no le abandonará. Se lo recuerda él y se lo recordarán sus enemigos.

Entre éstos se contaban los dominicos Cano y Pedroche con el arzobispo de Toledo llamado Silíceo. Atacan al Libro de los Ejercicios y dice Pedroche:

«Este *Ignacio* o *Iñigo* de Loyola, según es fama, fue notado en la Inquisición por hereje... El cual *Ignacio* o *Iñigo* se fue huyendo a Roma para escaparse de la Inquisición... Item más se ha de notar y ponderar que, más de la experiencia interior de su pecho y de la interior unción del Espíritu Santo, que no de los libros, sacó y compuso el dicho *Ignacio* o *Iñigo* estos ejercicios... lo cual sabe a la fuente de los dejados y alumbrados». (Página 339 de la citada obra de Telletxea).

Eneco, *Iñigo*, Ignacio, *Iñaki* cuatro nombres para un mismo personaje.

Que ha llevado a Loyola hasta los confines más remotos de la Tierra.

De todo lo dicho pudiéramos deducir, como un resumen, que oficialmente su primer nombre parece ser *Enecus-Eneco*. Así aparece en documentos de Azpeitia, con alguna variante, en su primera edad. También en 1523, cuando *Iñigo* tenía ya 32 años, en un documento oficial solicitando del Papa el pasaporte para Jerusalén. Documento firmado en Roma y en latín a nombre de *Enecus de Loyola*.

Ignatius-Ignacio lo emplea para documento oficial universitario, de modo que el título de Magister (Master) o Maestro, con facultad para enseñar, lo obtiene con el nombre de *Ignatius de Loyola*. Así que en adelante será el *Maestro Ignacio*. El título de Maestro, equivalente al Doctor actual, irá siempre asociado al de Ignacio.

Consigue en la Sorbona de París dos títulos: Maestro en Artes y Maestro en Teología, que era la continuación del anterior.

Con estos títulos podrá impartir la enseñanza en todas las Artes o ma-

terias profanas y en la Teología, que era el caballo de batalla en aquellos días de la Inquisición que tenía a *Iñigo* en su punto de mira.

Los siete primeros, que compondrán el núcleo de la Compañía de Jesús, serán conocidos como los «Maestros Parisienses». Todos ellos son Maestros y todos llevarán siempre el título de Maestro por delante de su nombre de pila. Y lo han conseguido en París, en la Universidad de la Sorbona, la de mayor prestigio de Europa.

En adelante *Ignacio* será el Maestro en Artes y en Teología y así firmará en todos los asuntos oficiales; pero cuando se trata de la elección de superior entre los once amigos primeros de la Compañía, varios años después de obtener los títulos de Maestro, firmará como *Iñigo*.

Este de *Iñigo* es el nombre usado en su vida privada. El *Eneco* oficial en su casa lo convirtieron en *Iñigo* y con *Iñigo* anduvo por el mundo mientras no topó con la administración oficial en cuyo caso se convertía en *Eneco* y, en la última fase de su vida, en *Ignacio*, el de la Universidad.

Sus apellidos

Los apellidos entre nosotros se tomaban de la casa: Goicoechea, Telletxea, Errotazar... O de la posición de la casa: Garate, Garay...

O del nombre del padre: Perurena, Martiarena, Mikelarena, que convertidos al castellano hacen Pérez, Martínez, Miguelez... hijo de Pedro, de Martín, de Miguel... Estos son los patronímicos.

Iñigo coge como apellido el de la casa: Loyola y le añade por delante el patronímico López. Resultando *Iñigo López de Loyola*.

Pronto en su vida pierde el López y quedará como *Iñigo de Loyola*. Pero, pudo haber tomado también el nombre de otra de sus casas: la de Oñaz.

Un antepasado directo suyo se llamaba efectivamente Martín García de Oñaz. El hijo de este Martín se llamará Juan Pérez de Loyola que no coincide con su padre ni en el patronímico ni en el de la casa.

Los descendientes de Martín García de Oñaz tomarán ya el apellido de

la casa de Loyola, pero con los patronímicos siguen haciendo lo que les viene en gana. *Iñigo* y su hermano Peru toman el patronímico López y en cambio su hermano mayor el de Pérez de Loyola, porque su abuelo, hijo de Martín García de Oñaz, se llamaba Juan Pérez de Loyola.

Se ve que *Iñigo* tenía sus raíces en las casas de Oñaz y de Loyola, por eso formarán parte de los banderizos de Oñaz u oñacinos en lucha contra los de la casa de Gamboa o gamboinos. Este es un dato determinante en la vida de *Iñigo*.

Nos dice Telletxea en su libro ya citado anteriormente:

«Los Loyola eran oñacinos, los más poderosos del bando fuera de los Lazcano, con quienes emparentaban...»

Pertenecían, pues, a uno de los bandos en que se dividían los llamados Parientes Mayores poseedores de casa-torre, de caseríos y montes, herrerías y barcos de alto bordo. Empresarios de su tiempo y al mismo tiempo gente de armas que tradicionalmente han colaborado en la lucha contra los moros por liberación de la península ibérica.

Cuando descansaban de la lucha contra los moros, luchaban entre sí los dos bandos y sus casas. La guerra se había convertido en su deporte favorito; así nos lo dice uno de los contendientes, Salazar, el jefe de la casa de Muñatones en las Encartaciones de Vizcaya, que en sus memorias escritas en el siglo quince, expone como una de las razones importantes de las acciones de guerra, el ver «e qual sería maior».

Puede uno imaginarse a Euskalerria como una gran plaza, donde se disputan levantamientos de peso, arrastre de piedras o corte de troncos... o partidos de fútbol. Para ellos el deporte era la guerra entre sí o contra los moros. Cuando no había moros, siempre quedaba algún vecino de bando contrario.

Los antepasados de *Iñigo* tenían una casa torre, la de Oñaz, en el monte y la de Loyola en el valle, y no lejos la una de la otra.

Su casa dio nombre a uno de los bandos, el de los Oñacinos, entre los cuales siempre se condujeron como

jefes de fila. La lucha entre Oñacinos y Gamboinos sembró el país de robos, incendios y muertes.

Para defenderse de esta situación fueron creándose «villas» y dentro de ellas, Hermandades, que en la unión está la fuerza. El nombre de «villa» a mi entender procede del euskera, pues antes de su formación las casas o caserío estaban dispersos y al formar las villas se reúnen las casas formándose *erri-billa* o *pueblo-recogido*, cuando antes estaba *disperso*. *Bildu*, de donde viene *billa*, significa *recoger*, en oposición a *dispersar*.

Iñigo nace en el año 1491, en vísperas del descubrimiento de América. Cuarenta años antes, en 1451, los Parientes Mayores, bajo cuyo nombre se encuadran todos los jefes de banderías y dueños de las casas-torre más poderosas, desafían a las villas de Deba, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ordizia, Segura, Getaria y Mutriku, todas las cuales habían constituido una Hermandad para defenderse de los ataques de estas familias arrogantes.

Como consecuencia de estas luchas, seis años más tarde, el 21 de abril de 1457, Enrique IV manda desmochar las torres de estos Parientes Mayores guipuzcoanos. Desde entonces la casa-torre de Loyola tiene su parte superior reconstruida en ladrillo, desapareciendo sus almenas y su aspecto de torre.

No sólo se acortaron las torres, sino que además sus dueños fueron enviados a Ximena, frontera de los moros, a luchar por su cuenta contra ellos. Cuatro años duró el destierro. Allí estuvo luchando el abuelo de Iñigo, Juan Pérez de Loiola, y el bisabuelo Lope Garzia de Lazkano.

Oñaz, Loyola, Lazkano, apellidos que encabezan la lista de los Parientes Mayores, todos ellos aparecen en Iñigo de Loyola.

Su familia estaba en la cumbre del poder guipuzcoano. Por eso, después de su conversión, Iñigo, peregrino por el mundo, jamás se identificará. Guarda el anonimato más absoluto. Sólo en Roma, al hacer la instancia para el pasaporte de Jerusalén, firmará con su nombre de registro: *Enecus de Loyola*. Pero Roma estaba muy lejos y allí desconocían la categoría social de los Loyolas. No obstante

silencia su origen, por si acaso.

A pesar del destierro, estos parientes de Iñigo no pierden el favor del Rey de Castilla por los servicios que ellos y sus antepasados habían llevado a cabo en la lucha de la reconquista. De modo que Juan Pérez de Loiola, abuelo de Iñigo y desterrado en Ximena, pudo dejar en herencia a su hijo Beltrán, padre de Iñigo, la casa de Loyola convertida en palacio, además de toda su hacienda constituida por las tierras de la casa, más caseríos y herrerías, amén de los derechos de patronato de la parroquia de San Sebastián de Soreasu en Azpeitia y otras nueve ermitas.

Por su parte, Beltrán participó en la lucha contra los moros hasta la conquista de Granada y la reconquista total de la Península Ibérica. Y sus hijos, hermanos de Iñigo, murieron los dos mayores en la guerra de Nápoles, otro en Hungría y el cuarto en América... A pesar de esta sangría no se agotaba ahí el tronco familiar, ya que Iñigo era el decimotercero y último de los hermanos. El benjamín de la casa.

LABURPENA

Iñigoren Izen-Abizenak

Iñigo Loiolakoak *iru zen* erabili zituan bere bizitzan: Eneko, Iñigo eta Iñazio. Berezko eta asierako izena *Eneko zen*, Azpeitiako papere zaarretan agertzen denez. Erroman ere izen orekin izenpetu zuan, Aita Santuari, Jerusalem'era Joateko baimena eskatuz, egin zion eskabidean: *Enecus de Loyola*. Ogeita amabi urte zitun. Badi-rudi orixe zala bere izen ofiziala: *Eneko*.

Gerora, La Sorbona Paris'eko Unibersitatean sartzeko, izena aldatu zuan. Eneko'ren orde *Iñazio* ipiñiez: *Ignatius de Loyola*. Izen berri ori erabiliko du baita ere, Maixutzako agerietan. Bi Maixutza jaso zitun: bat Arteetan eta bestea Teolojian. Titulu orrek irakaskintzarako eskubideak ematen zitun eta eskubide oiek bearezkoak zituzten bai Iñazio eta bai bere lagunak ere. Andik aurrera Maixu bezela agertzen denean beti *Maestro Ignacio* izenarekin egingo du.

Or ditugu bere bizitzako bi ero desberdiñetan bi izen ofizialak: asieran *Eneko* eta aizkenean *Ignacio*. Eta, bien bitartean?

Bien bitartekoa degu *Iñigo*: errian, lagunaren artean, senitartean... beti izango da, asieratik amaitzeraino, *Iñigo*. Etxean bere Eneko izena Iñigo'ra aldatu zioten eta beti, gauza ofizialik ez denean, izen orrekin agertuko zaigu.

Eneko, Iñigo, Iñazio eta gaur, berri, Iñaki.

Orra, lau izen gizon ospetsu barentzako.

Abizenak bi etxe zituzten, torredunak: bat mendian *Oñaz* izenekoa; bestea ibarrean, *Loiola*. Etxe onetatik artu zuten bere abizena: *Iñigo de Loyola*. Bere aurrekoak, ordea, *Oñaz* etxetik ere artu zuten. Zaiñak Iñigorri bi etxe oitatik datorkioz. Beste aurreko batek *Lazkano* artzen du.

Ona iru etxe eta iru abizen loiolarren artean: *Oñaz, Loiola, Lazkano*. *Oñaz'tik* sortu ziran *Oñaztarrak* eta auek *Genbotarren* aurka burrukatzen zuten. Bi alderdi burrukan, alkarri erasoten. *Oñaztarraren* buruzagi, *Lazkano* eta *Loiola*.

Burruka giroa, odol giroa... Bitartean, nagusikeri orreri aurpegi emateko, sakabanatuta zeuden etxeak alkarren inguruan *biltzen* asi ziren eta orrela sortu ziren *erri-billak*. Erderazko «villa», nere ustez, ortik sortuko zen, euskerazko «billa» edo «bildutik».

1451'an, Iñigo jaio baiño berrogei urte lenago, Aide Nagusiak, Gipuzkoako jauntxoek, desapio egin ziaten *billa* auri: Deba, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ordizia, Segura, Getaria eta Mutriku'ri. Danen artean Anaide edo Hermandade bat sortu zuten alkarren defentsarako...

Desapio eta eraso au dala-ta, Henrike IV'garrenak, Aide Nagusien etxetorreak mozte erabaki zuen eta arrezkeroz Loiolako torreak bere goi-zatiak ladrilluz egiñak ditu arriaren orde.

Gaiñera, egoaldera bialdu zitun, Ximena ingurura, moroekin burrukatzeraren euren kontura eta euren soldaduekin. Lau urte iraun zuan desterru arrek.

Alaz ere, Erregearen babesik ez zuten galdu, eurak eta euren aurrekoak moroen kontrako burrukeegaitik.

A. ARRINDA

MILIA LASTURKO

Lastur Deba arriaren auzoa dezu.

Zestua, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziar ditu inguruan zulo paketsu orrek. Gipuzkoan daudan baztar bakan-bakan oetako bat. Mendiak ingumarian.

Bakardadean.

Ara ez da oraindik kontaminaziorik eldu.

Urte gutxi dira bide-zabaleko nuturtxo bat luzatu zala, Itziar aldetik Lastur'ko enparantzara. Enparantza edo zezen-plaza; Itziarren eta Lasturren enparantza zezen-plaza biur-tuta daukate.

Enparantza oso txikia: taberna eta eliza alde batean, zezenentzeko ikullua bestean eta arri-esia bira guztian.

Lasturko festak bati zezen-festak izan oi dira. Edozein barrietan izango dituzu larrabeiak eta larra-zezenak. Gorriak eta motzak, latinez ikasitakoak. Tolosa, Azpeiti, Ondarra-bi, Urretxu, Deba, Zestua eta abarren sokamuturrik edo zezenik izango bada, Lasturko zezenak bear. Saketarrak baztar aietako nagusienak zezen-arazoetan.

Itziar'tik Endoia'ra dijoan bidean sortzen da Lasturrerako adarra. Milla bederatzireun eta larogeita seian adar ori luzatu dute enparentzatik Sasiola'raiño Bilbo'tik Donosti'rako bidearekin topo egiteko.

Lasturrerako kurutzebidean daukazu Aldazabalene, baserri eder galanta. Karlisten aizken gerratean Santakruz apaiz gudariak izan omen zuan bere gordelekutzat. Sakon dago etxea, Lastur sakonago badago ere. Ez zuan bista txarrik izan apaiz burrukalaria etxe ura bere gordeleku aukeratzeko; ez bait zan bide-zabalik orduan bat ere andik Itziar'arte.

Andik oiñez berak eta bere mutillek ordu bete naikoa zuten Deban, Zumaian, Zestuan, Izarraitik beera Urolako bailaran, Elgoibarren edo Mendaron agertzeko. Bidetxigor guztiek ara jotzen bait zuten eta andik irteten. Basamortuaren erdian. Aukerako lekua bere burua gordetzeko eta bertatik inguru osoan bere zartakoak banatzeko...

Lasturko alaba zan Milia.

Aita aberatsaren alaba. Aberatsa abere asko-duna da; Lasturko baserriak abere askodunak dituzu: aberatsak. Baiña, Milia'rena oso zan aberatsa.

Milia Lasturretik Mondragoera joan zitzaigun Peru Garzia de Oro jaunarekin eskontzeko. Peruk, Milia gazterik izan, Marina Arrazola ezkondu aurretik ezagutzen zuan eta

Milia il baiño lehen, Marinari ezkontzeko errekadua egin zion. Millaren aizpari ez zitzaion batere atsegin izan Peruren jokabidea eta orixe agertzen dio illeta egunean bertso-kantari:

*Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea eta ardoa gorria.
Alabaña, kontrario da Milia,
azpian lur otza ta gañean arria.*

*Lasturrera bear dozu, Milia,
aitajaunak eresten dau elia,
amandreak apainketan obia;
ara bear dozu, andra Milia!*

*Jausi da zerurean arria,
arkitu dau Lasturren torre barria,
edegi dio almeneari erdia:
Lasturrera bear dozu, Milia!*

*Arren, ene andra Milia Lasturko,
Peru Garziak egin deusku laburto,
egin dau andra Marina Arrazolako;
ezkon bekio, bere idea dauko.*

Garibay historiari mondrautarrak dakartzki bertso auek. Lenengo lerroan «zauria» izena azpimarratu degu, itz orre-ri buruzko eztabaida dagoelako gaurko egunez. Garibayek orrela dakar eta Jesus Maria Leizaola, gure bigarren lendakariak ere bai bere Obras Completas bigarren alean 21garren orrialdean. Alaz ere, askoren iritzian eta nerean ere bai «zauria» ez baiño «saria» bear leuke izan.

*Zer ete da andra erdiaen saria?
Sagar errea eta ardoa gorria...*

Emengo edariak txakoliña eta sagordoa ziran; oien onduan ardo gorriak obeto laguntzen zion aura izandako emakumeari bere odolak berritzen. Gaur ere erditutako andreaki «bixita» eramaten zaio ardo-goxoa eta ez txakoliñik edo sagardorik.


Garibayek bertso oien azalpena ere ematen digu, onela esaten duanean:

DEBA - negua

«Su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarias»: «Aita jaunak eresten dau elia». Aitak jeisten dau (menditik aleizara) elia (talde aundia, abereena). «Gran hato de ganado» da «elia» Garybayren iritsirako eta itzulpen ori ondo datorkio Lasturreko izateari, abere-taldeak asko bait dira gaurkoz ere inguru aietan.

Aita jaunak abereak menditik jeisten ari dan bitartean «ama andreak apainketan obia», illobi edo sepultura. Sepultura-apainketa gureraño eldu da; orain ogei urterarte oitura zan sepultura gaiñetan ogia, argizaria eta beste janari mota geiago eskeintzeko ildakoen onerako, baita arkume, aari, zikiro eta beiak ere. Miliaren aitak abere-taldea zekarren menditik eleizara illetak aundikiro ospatzeko asmotan.

1911.garren urtean ona zer ikusi zuan Domingo Aguirre euskal idazleak Oikia'ko eleiz atarian: idi gizen bat eleizatari lotuta, apaiz-manteo beltza gaiñean zuela, lau-librako ogiak bere adarretan sartuak. Oikia'ko erretorearen aita illaren eleizkizunetan ari ziran...



Peruren arrebari ez zitzaion gogoko izan Lasturkoaren esana eta bat-batean eman zion erantzuna:

*Ez du Peru Garziak bearrik
ain gatx andia apukaduagatik,
zeruetako mandatua izanik
andrari ok ala kunpli jasorik.*

*Gizon txipi sotil baten andra zan,
ate arte zabalean oi zan
giltza porra aundiaren jabe zan,
onra andi asko kunplidu jazan.*

Ez dakigu zenbat luzeroko eztabaida izan zanik; baiña, Garybayek badakar beste bertso-sail bat Miliaren aizparenak. Onela diote:

*Arren, ene andra Milia Lasturko,
mandatariak egin deust gaxtoto.
Zerurean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna eta andrea,
bata leen, gero bestea,
Bialdu dogu zeruetara karteia,
arren diguela geure andrea.*

*Mondragoeri artu deusat gorroto,
giputz andra ok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz-kalean andra Maria Baldako,
Arte-kalean andra Otxanda Gabiolako,
Erribalean andra Milia Lasturko.*


Zerk itzaldtu ote zuen andre-bertsolarien argia? Illeteetan beti izan du andre euskaldunak bere eginkizun bereizia sepultura gaiñetan egiten ziran lanetan; baiña, geroz eta gutxiago. Ogei urte dira eleizeetan sepulturak gastatu dirala eta galdu; baita emakumearen zeregiña ere. Illeteetan bertsoak esateko oitura zaarra noiz aldendu ote zan gure artetik? Une artan galdu ote ziran gure artetik andre euskaldun bertsolariak...?

Emakumeak bazuan giro artako euskal-gizartean bere nortasuna, aizparen senarrari, danen aurrean, bere irizpideak eta arrazoibideak arpegira orrela bota sal izateko.

Nundik jaso zitun Garibay jaunak bertso auek? Apaiz baten aotik entzun omen zitun, umetxoa zalarik. Juan de Oñate zan apaiza, Mondragoen bizi zana.

Milia Lasturko omen zan bere amamaren ama.

Anes Arrinda



ZORIONEKO EUTANASIA

Udazkeneko orbela bezala dabil itz ori komunikabide guztietan. EUTANASIA gora eta EUTANASIA bera.

Eutanasia edo Eriotz-goza, Eriotz-ona, Miñigabeko-eriotza, Erruki-eriotza, Maitasun-eriotza... Milla izen badi-tu mintzaira oroetan.

Baiña, zer da eta zer ez da zorioneko Eutanasia ori? Eutanasia esan degu, edo Eriotz-ona... Gure arteko berba zaarra degu Eriotz-ona izena: Jainkoaren maitasunean eta bere laguntzan izandako eriotza izan oi da Eriotz-ona.

«Ona» itzaren esanaia, ordea, zabaldu egin da. Gaur egun zera esan nai du, gizakien maillan eta gizakien erara iltzeko eskubidea eta ez etxetik kampa botatako txakurraren maillan...

Trankil iltzea, alegia, lagunartean iltzea, maitasunez inguraturik iltzea... Ez bakarrik oraingo tresnekin luzatzen dan eriotza penagarritik iges egitea; baita ere eriotz-leku penagarriak diran gaizo-etxe aundietatik alde egiteko eskubidea...

Hospitalak eriotz-leku, matadero beltz biurtu zaizkigu. Errugabeko matadero otza. Matadero auetatik libra gaitzazu, Jauna!

Egundo arazo au korapillo latza biurtu da, «Tanatologia» deritzan zientzia berria sortu-araziz...

Eutanasia izenak gaizoarekin du zer-ikusia, maitasun eta errukiaren ikuspegitik. Baiña ez nolanaiko gaxotasunarekin, itxaropenik gabeko gaixotasunarekin baizik... eta era orretan dauden gizakumeekin erabiltzen diran bideak begien aurrean edukita.

Eziñezko eutanasia

Gure Sinismenak onartzen ez duen eutanasia auxe izango litzake: penetan dagoelako, gaixoa iltzea ikentza baten bidez. Esate baterako morfina geiegi emanda, eriotza dakarren iniezioa sartuz; zezenari «puntilla» ematen zaioan antzera. Au izango litzake gaixoa zuzenean erailtzea.

Zearretako bidea, berriz auxe: bear diran eta normalak diran sendabideak ukatzea gaizoari. Esate baterako: janik edo edanik ez ematea, suerorik ez ipintzea, odol-trafusioak edo dialisisak ez egitea, insularik ez ematea eta abar. Emen ere gaixoa iltzea izango litzake gure barruko intenzioa eta asmoa, eta ori zuzen-zuzenean; naiz-eta bideak zearkakoak izan. Auek ezaren bideak ditu zu, ezezkoak, baiña, gure gogoz baiezkoak dira, ezezko bide oietatik eriotzaren billa bai gabiltza.

Kristau ikuspegia garbi agertzen da arazo onetan eta zaltzarit gabe:

«Iñork ez du eskubidarik beste gizaki errugabeoari bizia kentzeko (naiz aur-galdu, naiz ume, naiz adiñeko, naiz zaar, naiz gaixo sendatu-eziña, naiz agonian dagoena). Iñork ez lezake ori bereburuarentzat eskatu, ezta beste inorenentzat ere... Ezta eragin edo agiten laga aginpidea dutenek...» (Acta Apostolicae Sedis-72 (1980) 542-552).

Juan Pablok ere berdin-berdin erakusten du (1985-X-21 an) onela esanez: «eutanasia krimen utsa da eta orretan laguntzerik edo norberak bere buruarentzat eskatzerik, baimena amanez, eziña da, norbere erantzunkizunaren aldetik...»

Aldanezko eutanasia

Gaioaren neke-miñak arintzea, naiz-eta orrela biziaren luzaera murriztuko dala ikusi, oribai okerrik gabeko eutana-



sia izango da.

Eriotza era egokiz eraman al izateko, gaixoak laguntza bear du.

Laguntza oien artekoa da, neke-miñak arintzeko dauden sendagaiak erabiltzea... Orixe da gizakumeari gizaki-eran iltzen laguntzea. Au ere sendagille eta jakintzuen eginbeerra da eta moral aldetik eragozpenik gabea. Miñak arintzeko lo-belarrak eta abar erabiltzeak biziaren luzaroak moztu lezake; baiña, baldintza ori ere jaso bearrezkoa da, gaixoari bere larritasunean laguntzeko...

Beraz, ori egitea ez da benetako eutanasia eta izen berria ere asmatu zaio eta auxe da: Ortotanasia. Kristauari pakean iltzen laguntzea da ortotanasia. Izena aldatu bear zan guztiak Eutanasiaren izenpean orain arte begiratu izan badira ere. Miñak ezin eramatekoak diranean, morfina ematea edo ezertako ez diran tubo ugariak gorputzeko zuloetatik kentzea (ezertako ez diranean penaz bizia apur bat luzatzeko baizik), oiek ez dira Juan Pablo bigarrenak krimen eta erailtza bat bezela jotzen duena, konzientziaz libre bait da oiek egitea...

Eutanasia berri onek zera eskatzen du, normalean edozein gaixoari ematen zaizkion laguntzekin il dedilla kristaua bere orduan eta bere garaian, antigualeko eran, alperrik penatzen eduki gabe orain erabiltzen diran medio eta bide izugarriekin...

Auxe da, izan ere, Elizaren benetako dotriña, bai Pio XII garrena eta baita Fede-dotriñako Kongregazioarena ere (1980).

Juan Pablo Bigarrenak erakutsi oiek argitu zitun bost urte beranduago, onela esanez:

«Bakoitzak badu bere burua sendatzeko eta senda erazteko eskubidea. Baiña, zillegi da, baita ere, sendakuntzak berekin dituen bide normalak erabiltzea eta bere oiekin konforme izatea, bide zail, gaitz eta arriskutzua artu gabe. Bide eta medio auek uztea ez da norbere burua erailtzea. Orrek zera esan nai du: gure izakiaren era arrunta eta normala onartzea, bide zaillegiak eta frutuarekin konparaziorik ez dutenak (medio aundiak eta frutu eskasa) ez artea senitartekoeri eta gizarteari karga geiegi ez leporatzeagaitik, edo artutakoak lagatzea, zillegi dala eta libre... baiña, medio eta bide arrunta eta normaletatik ibilliaz, auek bazartu gitea...»

Arazo au obeto aztertu nai duenak begira beza Gazteizko Seminarioko LUMEN aldizkaria (Vol. XXXVI. Mayo-agosto 1987. Nos. 3-4. Pgs. 265-290).

Anes Arrinda

* DEBA - *negua* *

ANTXIÑAKO EUSKALERRIA GALTLAGORRIEN ESKUTIK

GALTXA-GORRI

Udaberriko goiz alaitsua ta Gernika-ibaiaren ertzetik nebillen; lore baten gañean Galtxa-gorri ikusi nuan neri deika:

—Aizu, Euskaldun, nora zoaz...?

—Ikusmira nabil, ta... zu zeñ zaitugu...?

—Ni, Galtxa-gorri naiz. Ez al dituzu nere galtza gorriak ikusten, ala...?

—Mallubia ziñela uste nuan...

—Mallubia...? Ja, jaiii...! Txikia naiz ni mallubia izateko...

—Ta, zer zabilta zu, Galtxa-gorri...?

—Ni beti gizonaren morroi ta gizonari laguntzen...?

—Zertan...?

—Edozertan. Nik eta nere lagunek egiñ ez dezakegun gauzik ez dago.

—Ezer, ere, ez? Ezer, ere, ez?

—Egia esateko... dan-dana ezin dezakegu. Ona zer pasatu zitzaigun egun batean, Kortezubi'ko baserritar batekin:

Erosi ginduzten baserritarrak, soroan lan egiteko.

Agindu zigun lana egiteko. Lan ura amaitu ta an joan giñan berriro lan eske. Eman zigun beste biar bat. Akabau genduen. Beste bat... eta orrela, lau aldiz. Bosgarrenean etorri giñan baserritarrengana:

—Zer lan egingo degu?

Etzekien zer lan aman, beriala amaitzen ba'giñuzten lan denak. Orduan agindu zigun ekartzeko ura galbaian. Asi giñan lanean, baña, alegiñak eginda ere, ezin genduan urik ekarri. Gelditu giñan, azkenik, agindurik bete ezin gendulako...

—Orduan, gizona zuek baño azkarragoa da...?

—Guk, ordea, berak baño indar geiago...

—Ta, zu, ere, neri laguntzeko al zaude...?

—Bai, orixe...! Zertan laguntzea nai dezu...?

—Ni, Euskaldun gazte berria naiz, ta emengo berririk ez det...

—Nik emango dizut zuri Euskaldun zaarren berri...

SANTIMAMIÑE

Ori esatearekin batera, loretik nere eskura salto egiñ ta, bere beatzakin Kortezubiko mendi bat erakusi zidan.

—Mendi beltz ori ikusten dezu...?

—Gallurrean ermita zuria duena...?

—Mendiaren izena Ereñusarre da, ta mendi orren egalean «Santimamiñe» koba-zuloa dago...

—Artu ningun aidean, ta izugarritzko errun eraman nindun Ereñusarre mendira. An ikusi nuan leize-zulo aundi bat. Leizearen atakan, lapa ta txirla azalak ugari...

—Zer dira onek? —galdetu nion Galtxa-gorri'ri.

Zera... zuen aurrekoak-jandakoen arrastoak... Ez dezu, or beean, Gernika'ko ibaia ikusten...?

—Bai.

—Ta, an, beerago, itsasoa?

—Bai, ta.

—Ba, antxen biltzen zituzten lapa ta txirla auek...

—Ta, ortik bizi al ziran...?

* DEBA - *negua* *

—Orretzag gañere, arboletako frutu ta igaliak, lurreko belar ta sustriak ere, jaten zituzten... Baña, eizetik bizi ziran batez ere...

—Eiztariak al ziran...?

—Bai.

—Ta, zer arrapatzen zuten eizean?

—Pizti ta aberak: zezenak bezela, bisonte, basuntz, zaldi, basurde ta beste asko ere, bai...

—Bisonteak...?

Bai, bisonteak ere, bai... Orain emen ez dago bisonterik, baña, orduan ba'ziran Euskalerrian...

—Ori, ipuien bat izango da...

—Ipuia...? Etorri kobe barrura nerekin...

Sartu nindun leize-zuloko illunpe artara. Piztu zuan krisallua, ta, barru-barruan, ezkerreko ormatik gora, kuarto txiki batean sartu giñan biok.

—Enee! Oiek, zer dira...?

—Zuen aurreko Euskaldun zaarrak egindako marrazkiak.

—Zenbat urte ote, egiñ zituztela...?

—Amabi milla urtetik gora... Ezagutu nituan euskaldun aiek. Zuen antzekoak ziran...

—Ta, aiek aalmenik ba'zuten orrelako marrazki egoki ta ederrak egiteko...!?

—Ala dirudi... Ara emen, aitatutako bisonteak... Ikusten al dituzu...?

—Bisontekin batera, beste animaliak ere ikusten ditut. Ara, artza ta basauntza, ere...

—Ipuiak al dira...?

* * *

Txoraturik nengoan marrazki aieri begira. Prekistoriko Euskaldun aiez etziran beti lo egon... Etziran nola-naiko artistak izan...!

—Aizu, Galtxa-gorri, ta animalien marrazkiak zergatik egin zutuzten orrelako toki izkutuena...? Or kanpoan, argia dagon tokian, egitea ez al zan obe...? Jendeak obeto ikusiko lituzke...

—Baña, irudi oiek etzituzten egin jendeak ikusteko...!

—Zertarako orduan...?

—Euskaldun aien elizatxoak ziran zulo auek...

—Elizak ere, ba'zituzten...!

—Elizen antzekoak... Eizera irten aurretik, leizera etorri, ta leizeko illunpe onetan egiten zituzten beren otoitzak, animalia auen aurrean...

—Apaizik ba'zeukaten otoizak egiteko...?

—Aztiak ziran aien apaiz. Eta, otoitzak egiteko, mozorroz jazten ziran.

—Iñauteri ta Karnabalak al ziran ba, mozorroz jazteko...?

—Euskaldun zaarren aztiak mozorroz jantzita aztikeriak egiten zituzten beren koba-zuloetan; Zuek, berriz, (aaztu zaizute aztikeriak egiten) Iñauterietan, astokeriak egiten dituzute galantak...

—Ori ere, ala da ta eziñ ukatu... Baña, mozorroz jaztea orduko gauza izango da...?

—Bai, orduko oituratik datorrena da... Gauza ura zertarako zan, ordea, aaztu zaizute..

AKELARREAK

Orduan gogoratu zitaidan nere Lekeitio'ko amonak esaten zidana: sorgiñak mozorroz jazten zirala akelarrera joateko, ta gure auzoko Benita, atso zaarra ere, sorgiña zala...

—Galtxa-gorri, sorgiñik ba al zan koba onetan...?

—Inguru guzian zegoan emen sorgiña ugari baña, Kristandadea sortu zanean, galdu ziran sorgiñik geienak... Banaka batzuek gelditzen gera oraindik...

—Zu ere, sorgiña al zera, ba...?

—Nik, neronek ematen dizkiet azti ta sorgiñeri, eurak bear dituzten aal ta indarrak. Jostorratz-ontzi batean eramaten naute berekin.

—Ta «akelarreak» egiten ziñuzten...?

—Orduko«akelarre» aiek galdu ziran...

* DEBA - *negua* *

—Nun izaten ziran «akelarreak»...?

—Zugarramurdiko koban egiten ziran oso akelarre famatuak; baña andik aparte ere, izaten ziran...

—Nun...?

—Larrun mendian, Ataun'go Mandobita'ko zubi azpian, Orozko'ko Garaigorta'ko aitzean, Dima'ko Petralanda zelaian... ta bide-kurutze guztietan...

—Ta, zertzuk egiten dira ekelarre batean...?

—Ara, kontatuko dizut Bidarte'ko mutillari zer gertatu zitzaion beñ:

Ostiral arratsalde batean, Txomin Bidarte andregai ikustera joan zanean, oñetako pare polita eraman zion Kataliñ'eri. Kataliñ sorgiña ote zan susmoa jaiotako errian; baña Txomiñ'i susmo oiegaitik ajolik ez. Ziranak zirala, bera Kataliñ'ekin ezkonduko zan... Bai, orixe...!

Oñetaoak oraindik amaitzeko zeuzkan, ta ekin zion lanari. Bitartean gaua eldu da, etxera biurtzeko ordua ere, bai... Baña, bertan lo gelditu zeldiñ, eskatu zioten Kataliñ'en gurasoak: kutxa batean egingo zula lo...

Gelditu zan.

Gau-erdian zer edo zerk esnatu zuan... Kataliñ zetorren anka-puntetan... Gerturatu zan sut-ondora, labatzapetik arri bat jaso, bertatik kutxatilla atera ta bertako olioarekin bere gorputza igurtzi ta onela esan bitartean:

«Laño gañetik eta odei azpitik».

Ori esanakin batera, tximinitik gora, egaka, abiatuan.

—Oraintxen dakik Kataliñ-en berri, zion Bidarte'k. Ta, Kataliñ'eri egiten ikusitako guziak egin zituan berak ere. Bere burua ikusi zuan airean, mendien gañetik, zelai zabal bateraño... An ikusi zituan ikustekoak...! Gende apain askoren artean, an zeuden bere lagunak ere, Kataliñekin batera. Soñeko gorriakin zebillen Katalin.

Izkututik (ez bai zuan ausardirik bistara agertzeko) gauza asko ikusi ta ikasi zituan.

Aker-beltza erdi-erdian zegoen.

Ta etorri zan akerrari agur egiteko ordua. Banan-banan, bata bestearen ondoren, akerrari atzekoaldean muñ ematera, eldu ziran. Etxiola berak munik emango, zion Bidartek bere-kasa.

Txanda etorri zitzaionean zorroan zakarren labaña atera ta sartu zion akerrari atzekoaldetik...

Akerraren orruak...! Bat-batean, argia itzalduta sorgiñak izkutatu ziran...

Bidarte bere onera zanean, larrartean etzanda ikusi zuan bere burua... Etzaio oraindik sustorik pasa...

Sorgiñak etzirala ta, nengoan pentsatzen... Zer esango ote zidan Galtza-gorrik arazo arreri buruz...?

—Nere aitak esaten zuan Eibarek galdu zitula sorgiñak...Egia al da?

—Eibar'en egiten dituzten arma motzak eta pistolak,gezurrezko sorgiñ-lapurrak galdu zitun...Besteak,ordea,ermitak eta elizak galdu dituzte...

—Ara or beean,beste ermita bat,Galtza-gorri...

—Ori, San Mames'en ermita da. Ortik datorkio «Santi-mamiñe»ri bere oraigo izena, ta koba-zulotik gertu jaso zuten...

—Ta, an goiko tontorreran dagoan ura...?

—San Migelen ermita da... Bi ermita mendi bakar batean, aztikeri ta sorginkerien kontra... Kontuak atera, zenbat sorgin bizi zan inguru auetan...

—Aiñ gaiztoak al ziñaten...?

—Ez giñan oso onak izango... Baña, gure arrastorik ez da oraindik uskaldunen artean galdu...

—Ezet...? Nola, baña, ainbeste urte pasa ba'dira arrezkero...?


—Zuenai eusteko. Zuek bezalako erririk eztera bi jaiotako munduan, da...

—Ez dizut, ba, ori sinisten: Gure artean sorginkeririk dagoanik, alegia...

—Ez didazula sinisten...? San Mames ermita ikusten dezu or aurreko muño orretan... Santimamiñeko koban egiten ziranak (edo aien antzekoak) San Mamesen ermitan egin oi dira: erromeriak, errogatibak, konjuroak... leizeko indarrak ermitara pasa ziran... ames txarren kontrako indarra da bat... Begira zer esaten duten baseritarrak:

«San Ames,
bart eiñ dot
Ames.
Ona ba'da
bion partez
txarra ba da
beyu artez...»

* DEBA - *negua* *



MARI, ANBOTO'KO SORGIÑA

Galtxa-gorri onek asko daki ta Amboto'ko sorgiña'ren berri ere, emango didala uste det.

—Aizazu, lagun zaar, Amboto'ko sorgiña bizi al da...?

—Anboto'ko sorgiña ta Murumendi'ko Damea, biak bat dira. Ta, «Mari» du bere izena...

—Izen polita du, «Mari».

—Aren menpean bizi gera gu-ta, beste sorgin klase guzia... bera da gure erregiña...

—Emakumezkoa al da...?

—Ta, oso ederra... Leize batetik bestera, odei artean dijoanean, sua dariola joan oi da...

—Etxe asko al ditu, ba?

—Euskalerriko koba ta zulo guztiak bere etxe ditu. Bera, lurpeetako eremuetan bizi da; ta andik irtetzeko ateak, leize ta kobazuloak ditu...

—Aberatsa izango da...

—Oso da aberats... Leizearen atakan egon oi da bere illeak urre gorrizko orrazeakin orrazten... Ba'ditu ere, urrezko krisallu, urrezko errada, urrezko matasak, urrezko sukalde-ontziak...

—Ez da urre gutxi...!

—Koba-zulo barruan ikatza gordeta dauka, ta kobatik kanpora urre biurtzen da ikatz ori. Ala gertatu zitzaion Markiña'ko neska bateri.

Bein batean juan zan Gabaro'ra, ardizañera ta kobaren ondora juan zanean, Amboto'ko Señoriak barrura sartu zuan, ta antxe azi zuan neskatilla ederra. Bertan neskak egiten zuan biarra zan gorua egiñ ta gorua egiñ, ta sekula etzan kanpora irten. Berak nai zituan guziak kanpotik ekartzen zizkion Señoriak.

Goiz batean esan zion sorgiñak: «kanpora irten bear dezu oraintxe». Berak etzuan irten nai, ondo zegoala ta... Ta kanpora irtetzeko prantatu zanean, Señoriak esanzion:

—Artu zazu ortxe esku bete ikatz.

Neskak erantzun:

—Zertarako dut nik ikatza?

Artu zuan, ta kanpoan eskura begiratu zuanean dana urre gorriz beteta zeukan...

—Mari, ona al da...?

* DEBA - *negua* *

—Bere aginduak betetzen dituenentzako, bai, ona da.

—Ze agindu...?

— Auek dira Mari'ren aginduak:

Gezurrik ez esan.

lapurketarik, ez.

arrotasunik, ez.

Emandako itza bete bear da.

Gizakumeari errepetoa bear zaio.

Auzo artean alkarri lagundu...

Orra, Mari'ren zenbait agindu eder...

—Ederrak dira, Galtxa-gorri...!

—Bera ere, ederra ta ona da. Ba'dakizu, ur billa zebillen artzai bateri zer egin zion Mari'k?

—Ez, ez dakit.

—Egari zalako, ur-billa zebillen Burumendi'n. Leize ondoan andre gazte bat ikusi zuan apaindurik ta ederrez jantzita.

—Zeren billa zabiltz? —dio andreak.

—Uraren billa. -erantzun zion artzaiak.

—Uraren billa? Sagardoren billa esan naiko zendun.

Besterik gabe, ekarri zion pitxar bat sagardo.

—Auxe bai, sagardo bikaña. Nungo sagarrekin egin dezu?.

—Ikastegietako Montes etxeko jaunak EZARI emandako sagarrekin. —Erantzun zion Mari'k...

—Ta, EZARI emanak'zer dira?

—Gezurra esaten duanari Mari'k kendutako gauzak dira EZARI emanak...

—Ori al da Mari'ren zigorra?

—Bai, ori Mari'ren zigorra da; baña ba'ditu berak beste zigor batzuk ere...

—Ze zigor...?

—Tximistea da. Mari'k zerutik botatzen duen arrizko aizkora da oñezt-arria...

—Aizkora bat...?

—Bai, aizkora bat. Orregatik, etxe atarian aizkora bat, aozgora, jarri ezker, ez da tximistarik etxe ganiera eroriko... Ori ere, ez zenekizun?

* * *

Santimamiñe kobako marrazkiak nituan buruan, ta Galtzagorri'k igarri zidan zer ari nintzan pentsatzen.

—Aizu, Euskaldun, Mari ez da beti andre bezela agetzen.

—Ez... ?

—Leize atakan edo atarian dagoanean emakumea da; baña, leize barruko illunpetan, animaliz jantzita ikusi oi dute...

—Ze animalien jantzi...?

—Zezen ta bei gorriena...

—Bei gorrien kontua nik ba'dakit.

—Ia, ba, Euskaldun, esaidazu kontu ori...

—Beiñ batean, bei-zai zegoan Irari'ko alabea. Eta gero, bei paltan etorri omen zan etxera.

Birao egiñ zion ugezamak etzalek geiago etxean sartuko beirik gabe... Iñularrean, bei billa juañ zan ta billatu zun bere bei-figura gorri-gorria. Ta eldu zion isatzetik.

Gero, pigura berekin, zulora sartu zan.

Etzan neska azaldu aldi batean.

Eta, zulo orren atakan, illea orazten ikusi zuten artzaiak. Etxera deitu zioten gurasoei artzaiak, neska nun zegoan.

Ateratzeko esan zioten gurasok neskari.

Eta, neskak txerri gorri txiki bat zuan aldamenean. Eta ura esnatzen baldin ba'zan, galduko zituala esan zien gurasoai, ta alde egiteko...

—Bei gorri ta txerri txiki, zaldi zuri ta aker beltz, ari edo suge...Mari dira denak...

—Semerik ba'du Mari'k...?

* DEBA - *negua* *

—Bi ditu: Atabarrri ta Mikelatz. Bata ona ta bestea gaiztoa. Ba'dakizu Lazkau'n zer gertatu zan bein...?

—Ez, nik...

—Mari'ren seme ona apaiz egin zan, ta bein, Senpere batallatik zijoala, agertu zitzaion beste anaia esanaz:

—Gariak ederra daude, baña ba'ditut gari oek joko dituzten zaldi galantak...

—Bai nik ere, zaldi oiek geldi-araziko ditun freno indatsuak... Etxeratu zanean esan zion apaiza bere neskameari:

—Murumendi gañetik odeien bat sortzen ikusten ba'dezu, abixatu eidazu beriala.

Alaxe gertatu zan.

Murumendi aldetik sortu zan odeia. Apaizak konjurua egin zion; baña, alperrik: kazkabarra, kazkabitoa, txingorra ta arria etzan gelditzen. Orduan apaizak bere oñetakoa kendu ta baratzara bota zuan, onela esanaz:

—Sartu ditezela or...!

Arri guzia apaizaren baratzan sartu zan; baña, erriari etzion kalterik egin...

* * *

Mari'k seme bat apaiz ba'zuan, bera kristau zintzoa izango zala uste nuan. Bada ez pada Galtza-gorri'ri galdetu nion:

—Ta, Mari kristau al zan...?

—Jentilla zan, ta kristau biurtzerik ez zuan nai izan. Ara zer gertatu zitzaion:

Beñi, bere senarrak gurdi bateri lotu ta, elizara ekarri zuan bataillatzera bere semeekin batera. Baña, elizara eldu ziranean, sutan jarri zan Mari ta, lokarriak erreta, aidean juan zan bere Murumendi'ko kobara, onela ziardula:

Matias Muru'ko,
Nere umeak
zerurako;
ta, ni orain
Muru'rako...

Kristautasunari etzion eder-etsi. Naiago zuan bere leize-zuloko Jentil bizitza...

—Ta, arrezkero an bizi al da...?

—Bai, an bizi da, elizara etorri gabe.

—Ez al da asarretzen...?

—Aldika asarreak izaten ditu; baña, oraigo alditan ez du leenago zuan indarririk...

MARI'REN MORROIAK

Mari'ren indar eta aalmenak nituan buruan. Mari'k izango zitun morroi ta neskameak ere... Galtza-gorri'ri galdetu nion:

—Aizu, Mari'k izango ditu morroiak...

—Morroi ta neskame ugari...

—Zen dira...?

—Ni ta nere lagunak gera Mari'ren morroi..

—Ori lenango ere, esan zidazun. Baña ba'du besterik...?

—Lamiñak, Basajaunak, Jentillak... Asko dira...

—Lamiñak, zer dira...?

—Sogiñak dira. Ibai-etzetan bizi dira. Eta, zubiak egiteko, aparteko trebetasuna dute...

—Ingenieroak al dira ba, zubiak egiteko...?

—Zubi oso bat egiteko, lamiñak ez dute gau bat besterik bear, ollarrak kukurruku jo arte. Ba'dakizu zer pasatu zitzaien egun batean...?

—Ze...?

Arroza'ko zubia egiten ari zirala, aizkeneko arria jartzeko zegola, ollarrak jo omen zuan. Lanari utzi ta, laisterka alde egin bearra izan zuten; ez, orratio, ollarra madarikatu gabe:

«Martzoko ollar gorria,
madarika ikala mihia (mingaña)».

Ori esan da gero alde egin zuan...

—Ta, Basajauna zeñ da...?

—Basajauna, gizon aundi illeduna degu; koba zuloetan bizi dana. Aspalditik zekiten Basajaunak garia ereiten eta ogi zuri gozoa jaten. Gari arren inbiritan zeuden kristauak ta, begira, ze asma zuten Basajauneri garia arrapatzeko:

* DEBA - *negua* *

—Muski'ko koban, Basajaunek bizi ziran. An gallurreko lorreak erabillita, sekulako gariak biltzen zituzten. Bee-aldeko lurretan Kristauak bizi ziran, ta, artean etzuten garirik ereiten, gal-azirik ez ta.

—Beñ, Sanmartin Txiki, botiñ aundi batzuek jantzita, igo zan Muski'ko kobara; ta, ango garpillak ikusi ta, zefiek saltoa ariñago pasatu, Basajainekin apostu egiñ-zuan.

—Baita, Basajaunek berealdiko erreztasunez pasa zuten; Sanmartin Txiki, berriz, gari pillaren erdian erori zan; baño, baita botin guziak gal-alez bete ere...

—Kristauak etzekiten noiz erein; baña alako batean, Basajaun bateri aditu zion, algaraz esaten:

—Ja, ja, jaii...!
Ba lekia, artuko likenea:
Or irtere, arto ereite;
or erorte, garie ereite

Ordutik zabaldu zan garia erri guztietan...

—Asko dakizu, Galtxa-gorri...!

—Urteen poderioz ikasi ditut dakizkidanak...

—Ta Jentillak ere, ba omen ziran Euskalerrian...?

—Bai, ba ziran...

—Ze tipoko jendea zan...?

—Oso indartsuak aiek ere, Basalaunen antzera. Esango dizut beñ zer gertatu zitzaion Zarain'go Arrola baserriko jentillari. Joan zan gari billa Araba'ra.

Idi-narru bat gari, bizkarrean zuela zetorrela, bere alabea topatu zuan aurrez-aurre Zerain ta Zegama'ko mugan.

—Atsedean egizu ura edan artean. Esan zion alabak.

—Jakín izan ba'niñ atsedentzea zer zan, beste ainbeste gari ekarriko niñan.

Buruan zeukan erradatik eskeiñi zion ura alabak eta erradabaldea urarekin irentsi zuan aitak.

—Nun degu baldea? Galdetzen du alabak.

—Apurren bat irentsi ote diñadan iruditu zatan...

Indar aundiak zituzten, baña lepa-zamarra ere, etzuten txikia...

—Bai, ala iruditu zait neri ere...

—Beste beñ ba dakizu ze gertatu zan Murumendi'n...?

—Nik ez dakit ezer...!

—Ba, pelotari batzuk pelotan zebiltzen. Ta, jentil bat juañ zitzaian ta galdetu:

—Zer egiten dezute emen?

—Pelotan jokatu. Erantzun zien.

—Arri au zertarako dezute?

—Sakarrirako. («Largoan» jokatzen zanean sakerako zegon arri aundi bat...)

—Berau ere ez dek txarra peloten eran botatzeko.

Ta, artu eskutan sakarria ta berealdiko erruan Aralar aldera bota zuan: Zer iruditzen zaizu...?

—Ba zuela ark indarra ta sasoi! Ta, aberatsak al ziran...?

—Beuren kobetan ba zuten urrea ugari. Emen bertan, Santimamifien, ere, idi-narrua bete urre gorri zeukaten...

—Orañ ez da jentillik eta orduan, bai... Zergatik galdu ziran Jentillek...?

—Ataun'en gertatu zana esango dizut gauza orreri buruz.

Jentillak Leizadi'ko koba batean bizi zirala, sekulako izar eder bat odaietan agertu zan.

Alako izarra ikusi zutenean, jentil oiek erabat ikaratu ziran, ta munduan zer gertatu bear ote zuan ezin asmatu zebiltzen.

Alako batean, koba barruan erdi-itxututa zegoan jentil zaar bat ataka aurrera atera ta, zabaldu endaeikin betazalak, ta odeietara begira jarri zuten, antz emango ziola, ta.

Baita, ikusi orduko, deadar egiñ:

—A, ene umek...! «Kixmie» jaio dek, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazute ni emendik gain-bera.

Jentillek Jesukristori «Kixmie» deitzen zioten...

Gero, Kristiandadea munduan zabaltzen asi zanean, jentil danak sakabanatu ta bereala galdu ziran...

* DEBA - *negua* *

Ta, zure jakin-mifñ ori ase al dezu, Euskaldun...?

—Aiskeneko galdera bat egingo dizut, baldin galdetzen uzten ba didazu...

—Galdetu, galdetu...!

—Tartalo'ren izena aitatu didazu leenago. Zein zan Tartalo ori?

—Tartalo, gaiztoa zan. Kopetaren erdian zaukan begi bakar aundi bal ta Aizkorri'ko koba batean bizi zan...

—Zergatik esan didazu Tartalo gaiztoa zala...?

—Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituan; baña kristauren bat arrapatu ezker ere...

—Jaten zituan...?

—Bai, orixe...!

—Ta, bizi da oraindik...?

—Esango dizut nolatan il zan:

Beñ bi anai arrapatu zituan.

Biak, mutill gazteak.

Kobara eraman, ateak itxi ta, aietako bateri burruntzia sartu, ta erreta jan zuan. Besteari, berriz eraztuna jarri zion beatz batean, eziñ kentzekoa.

Bazkalondoan loak artu zuan Tartalo...

Orduan beste anaiak, bizi zanak burruntzia sutan goritu ta bere begi bakarretik sarto zion Tartalo'ri.

Tartalo'ren orru ta garraxiak...!

Itxu gelditu arren, indarrrik ez zitzaion palta, ta mutillaren billa zebillen; ardi-narru pilla batean gordeta zegoan gure mutil ori. Mutilla errezago billatzeko, Tartalo'k ardi-narruak kobatik kanpora bota zitun. Baita mutilla ere, narruekin batera.

Ekiten dio mutillak aldapa-beera korrika. Baña, beatzean zeraman eraztuna asi zan deika:

—Emen nago...! Emen nago...!

Deadar orietara, Tartalo laiskerka mutillaren ondoren. Mutillak bere burua arrixkuan ikusi zuanean, beatza ebagi ta, eraztun ta gutxi, putzu aundi batera bota zuan... Baita Tartalo ere, eraztunaren atzetik, putzura... Berain itto zan...

Zure aizkeneko galderari erantzun diot, eta nere bearrik geiago espadezu, agur...

—Agur, Galtxagorri maite, agur...!

Besterik gabe alden du zitzaidan Galtxagorri Santimamiñe koba zuloan barna... Ta, gelditu niritan Gernika ibaiari begira. Zenbat gauza erakutsi zidan unetxo batean...! Ta, zenbat orrelako daude oraindik illunpean gordeta...!

Anes Arrinda

DEBA - udaberria

TENE MUJIKA

Lukas Dorronsororen deiera natorkizue, TENEren berriak ematera, GOAZ taldeak ain ederki antolatu duen Omenaldi onetan.

Izan ere aurten bete da, maiatzaren 25 an, Tene-ren jaiotzaren eun - urteko muga. Beste bi emakumeek ere bete dute muga ori Gipuzkoan : Elbire Zipitria da bat eta Julene Azpeitia zumaiarra bestea. Irurak abertzale, irurak euskaldun eta euskeraren arloan gogoz eta ondo lan egiñak. Julene eta Elbire, biak ziran irakasleak, andereñoak; Tene, berriz, bere erriko eskolatik pasa ez zana. Nundik sortu ote zitzaion irakur eta ikasteko zuen sena ?

TENE DEBARRA

TENE San Robustiano egunekoa zan eta Robustiana ipiñi zioten izen; euskeraz, Errobustene eta izen onen aizkeneko itzak artu zitun izenordeko bezala : TENE.

Garai aietako oitura bat zan euskal idazle artean. Inor gutxik zekien " Lauaxeta " Estepan Urtiaga zanik; eta " Lizardi ", Jose Mari Agirre zenik ere. Euskal literaturaren historiarako Lauaxeta eta Lizardi izan dira, besterik gabe. Berdin gertatu zaio Orixeri ere. " Arritokieta " zan Julene Azpeitiaren izen - goitia.

Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Arritokieta, Tene eta abar, izenordekoekin dira ezagunak. Oitura bat zala, beste esplikaziorik ez du arazo onek.

DEBARRA Debako kalean jaioa, sendi euskaldunen artean : jaiotzetik euskeraz azia eta ezia abertzale giro batean. Gertaera onek garrantzi aundia du euskaldun batentzat. Tenerentzako, dendari izateak, bazuan bere garrantzia ere eta ez nolanaikoa.

Zergaitik ?

Deba - kaleko euskera ez dalako izan, tarteka beintzat, ain garbia eta egokia. Zeinek ez du onelakorik entzun sekulan: Zer egingo riaguaba, ala rek eta ?

Tene dendariak goizero ar-eman ugariak izaten zitun Itziarko baserriar etxeoandreekin eta baserria izan da beti euskeraren gordelaku sakratua. Euskeraren Ikastola nagusia baserrian egon da. Ar-eman oietatik jaso zuan Tenek bere euskera jatorra.

Jaiotzetik euskaldun izan eta euskera-giroan azia izateak zer onura eta abantaila dakarzkion euskal idazleari ezin daiteke sinistu ere. Batez ere baserri batekoa izan ezkeroz. Alde batetik burua eta barruko sena euskaldunak; bestetik berriz, itzen aberastasuna. Burua eta pentsakera, jatorrak; itzak eta soiñekoa ere bai.

Euskera eta erdera molde desberdinetakoak dira eta aurtzarotik euskerara buru moldetuta izateak, orretzek ditu abantailarik aundienak. Geienetan, erderaz lenengo esaten dana, euskeraz aizken esaten da. Au argitzeko gertaera bat kontakodizutet.

Lekeition gerratean bonbardeo bildurra zanean, kanpaiak jotzen zituzten, arriskua erriari adierazteko. Egun artan kanpaiak jo zituztenez, nere osaba batek bere ama eta senideak berebil batean erritik kanpora eraman zitun koba - zulo baten ingurura.

Leizea aldapa batean zegoen eta nere amama Pillipa eta bere lagun Gergori " La Gorda ", automobilean gelditu ziran koba - zulora joan gabe.

Ortan daudela gerturatu zaizkie miliziano erdaldun ba-

tzuek esanez :

- Qué hacen ustedes aquí, señoras ?

Barruan zeudenak, ixilik. Gergorik esaten dio nere ama - mari :

- Berba egizu, Pillipa.

Eta gero neri gertaera ori kontatzean, esten zidan : Pillipak barbarik be ez. Gailletak jan da jan.

Alako batean bera, Gergori, asi zitzaien izketan:

- Este señora de hijo de auto. No poder ser andar.

- Qué dice, señora ?

- Fácil, fácil : este señora de hijo de auto.

Milizianoek naiko algara egin zuten Gergoriren kontura; baiña berak neri esaten zidan : Aiek tontuak ziran. Nik garbiago esan ezin : Andre onen (este señora de) semearen (hijo de) automobilla (auto). Nola esango nien errezago ? Ezin.

Euskeraz pentsa eta erderazko itzak in esan. Erdaldun batek ori ez du sekulan ulertuko. Baiña, alderantziz ere ez : erderaz pentsa eta euskerazko itzekin jantzitakorik, ez du euskaldun uts batek ententituko. Kursillo batzuek egitea ez da naiko, erdaldunak izanik, euskeraz idazteko. Jantzia izango da euskalduna; baiña, barruko molderik, ez. Orrelako asko dago gaur Euskeraren arloan.

Irakurri itzatzue aldizkarietan agertzen diran iragarkiak; eskerrak aldamenean erderaz datoztela; ondo giñake bestela. . .

Orrelako buruausterik ez zuan Tenek. Buruaustek osasun aldetik zetozkion. Gaztaroan gaixo zebillen bizkar - ezurretik eta sendagilleak zionez, kiriotakoa zan, nerbiotakoa alegia. Baiña, Lerenburg mediku famatuak etena zeukela bizkar - ezurrean esan zion, hernia de disco, eta ez zala sendatuko ebakuntzarik gabe. Operatu ondoren, ondo gelditu zan betirako.



Anes Arrindak eman zuen Teneri buruzko hitzaldia

TENE ABERTZALE

Ona zer dion Augustin Zubikairek :

" Tene izatea, bizitza guztia, ortik joan zan : aberriaren maitasunetik . . . Emakume Abertzale Batza euskaldunen arteko erakunde bat zan, gerra aurrekoa. Politikan baiño geiago gizarte lanetan ekin oi zuten . . . "

Izlari ere ibili zan Tene eta Oiartzungo festetan 1.923 garren urtean itz egin zuan Tenek. Onen mintzaldia entzun ondoren onela zion Gure Herriaren " Oxobi " ifarral-

DEBA - udaberria

deko idazleak : Oartzunen izan zala eta an beltzez jantzi-tako emakume lirain, arpegizuridun bat ikusi zuala jendea-ri izketan eta barru - barrutik auxe irten ziola berari :

" Tene onen antzeko amar idazle bagenduz, Euskalerrria biziko lizake eta euskerak bere bidea zabalduko leuke. "

Tene izendatu zuten Emakume Abertzale Batza orren lendakari eta buru Zumarragako billera batean, Uztaillaren 7 an, gerra aurreko urtean, 1.935 an.

" Argia " astekari euskalduna zan eta urteero, Gabonetan, Egutegi bat atera oi zuan. Aizkenekoan, 1.936 koan, Teneren lantxo bat dakar izenburu onekin : 1.936 - 2.036. Eun urte beranduago biziko direnentzat idazten du. Begira nun zebillen aren burua. Badator ere bertan Teneren orrialde osoko argazki bat ere. Emakume Abertzale Batzakoeren artean, lau emakume aukeratzen ditu Egutegiak eta Teneren berri eman ondoren, onela dio 150 garren orrialdean :

" Emakume guztiak eta ez emakumeak bakarrik, gizonak ere bai, Tene ainean saiatuko bagiña, ez al da egia Euskera indarturik ikusi al izango gendukela ? "

Urte orretan sortu zan guda negargarri bat eta Tenek, beste millaka ta millaka askok bezala, abertzaleatasunaren ondorenak jaso bear eta biziarengatik, danak utzita, itsasoz eta arrisku larrien artean La Rochellera igesi joan zitzaigun.

Aurretik onela idatzi zuan :

" Bere umetxuak euskaldun eta euskaltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aundidun bat".

TENE EUSKALTZALE ETA EUSKAL - IDAZLE

Onela dio Augustin Zubikaraik :

" Ba egoan bere garaian, berari (Teneri) atsegin jakon beste erakunde bat, erri askotako batzokietan zabaldu zana : Euskaltzale Bazkuna. Gogoz lan egiten eban or. Bere lenengo liburua " Miren Itziar " i Idazkiak eta Olerkiak " ain zuzen Euskaltzale Bazkunak Amorebietan egindako leiake-ta baten saritua izan zan 1.923 garren urtean. "

Aberria maite zuan Tenek eta aberriaren ezaupiderik garbiena dan Euskera ere bai. Orregaitik ikusi degu Oartzunen euskal izlari beste toki askotan bezela; bagiña, itzak aizeak eramaten ditu idazten ez badituguz. Teneren pentsamentuak beste askoren buruetara pasa ziran berak ezertxo galdu gabe; eta orixe da izkeraren ederra; itzak eurak, ordea, galduak dira.

Zorionez idazle ere izan zan. Euskal - idazle eta arlo askotan, itz lauz eta itz neurtuz.

Kazetaritzako lanak, gaztearokoak, Donostiako Argi astekarian, Bilboko Euzkadi egunerokoan eta Zornotzako Jainko - Zale aldizkarian agertu zitun.

Liburugintzan ere ibillia da. Liburu batean bi lan aurkezten ditu : bata Miren Itziarri Idazkiak eta bestea Olerkiak. Zornotzan saritua eta bertan argitaratua izan zan 1.923 an. Berak aurreitzetan dionez, lenengo idazkiak Jel aldekoak dira : abertzale idazkiak, alegia. Eta liburuari buruz auxe dio :

" Bakar - bakarrik billakatu Aberri maite - maite duan biotz baten naimen ona; bertan arkituko dezuten guztia onetxek arazia da-ta. "

Antzergille ere badegu Tene : Iru antzerki egin zitun eta irurak izan ziran sarituak. 1.934 an bi. Lenengoa Gogo - oñazeak, iru ekitaldiko antzerkia, biar GOAZ taldak antzertuko duena eta DEBA aldizkarian datorrena xeeta-

sun guztiekin Julio Urkaregiren eskutik; kritika lan ederra egin dio.

Gabon izena du bigarrenak eta " Umeentzako antzerkitzkoa " dala dio egilleak. Auek biak Tolosan izan ziren sarituak.

Irugarrena ere ba du, Juan Jose izenekoa, iru atalekoa au ere. Oneri buruz ona zer dion Aita Santi Onaindiak :

